



Bizitzeko festak

Bi urteko etenaren ondoren betiko moduko ospakizunak izanen dira herrietan / 8-9

AROA BERASTEGI



Etxebizitzen energia birgaitzean laguntzeko bulegoa zabaldu du Nasuvinsak / 10

Festen antolatzaile diren udal eta eragileei ereduaren lanketa feminista eskatu diete / 16



Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Gomako finalak jokatuko dira jokandean Altsasun / 17

Arbizuko Balda Futsal 24 Orduak antolatu eta gero, Xixonen torneo du Arbizu Kirol Taldeak / 16

Ziordiko sukaldariei eta herriari omenezko abestia egin die Jose María Alegriak / 23



EuskarAbenturan parte hartuko duten zortzi sakandar: Jare, Leire, Maia, Ainhoa, Irati, Katrin, Itziar eta Olatz.



Eneko Andueza Martinez.

SAKANA

Gazteago zirela parte hartu zuten Ruta Quetzal espedizioako oroitzapen ederrak gordeta, haren "euskal aldaera bat" sor zitekeela sinetsita, hamar gaztek irabazi asmorik gabeko EuskarAbentura elkarte sortu zuten. Ideia ondu ondoren, 2018an aurreneko espedizioa antolatu zuten. Eta ordutik, pandemia gorabehera, ideia berari eusten diote: Euskal Herriko zazpi lurraldeetako nahiz diasporako (aurten ez dago) 16 eta 17 urte arteko gazteak euskal geografia, kultura eta historia lagunartean ezagutzera daramatzan oinezko espedizioa antolatzea. Bi urteren ondoren, ohiko formatura bueltatu da aurten EuskarAbentura. Eta, beraz, espedizio ibiltariak Maule eta Getxo arteko bidea eginen du 31 etapatan. Gazteek aldean eramango dute hilabeteko espediziorako behar duten guztia, besteak beste, lozakua eta estera, kantineplora, jateko ontziak eta tresnak, nezeserra eta arropak. Nomadek frontoietan, kiroldegietan, eskoletako aretoetan hartuko dute aterpe.

EuskarAbenturak hizkuntza, gizarte, ekonomia eta kultura

Gazteen hilabeteko euskarazko abenturara doaz jzioquitarrak

EuskarAbenturan parte hartzen dutenek jasotzen dute jzioquitar izena. Euskararen lurralde guztietako 128 gazte, 9 sakandar tartean, garilean, 31 etapatan, Euskal Herriko Donejakue bideetan barna 700 km pasa egingen dituzte, haietatik 500 oinez

errealitate anitzeko gazteak nahastu eta, hilabetez, Euskal Herria zentzu zabalean ezagutzera eramango ditu. Beraien dako esperientzia ahaztezina izanen dena euskaraz biziko dute. Antolatzaileen helburua da parte hartzaileek "gure mendietan, kostaldean, erreketan, herri nahiz hirietan goza dezatela; kanta, dantza, negar, irri eta amets egin dezatela; adiskide berriak, ligoteoa, eztabaidak, besarkadak... sor daitezen nahi du EuskarAbenturak, eta hori guztia euskaraz gerta dadila.

Espedizioak iraun bitarte, eta gerora aurrera egingo duten harremanetan ere".

Gazteen artean euskararen erabilera sustatu eta normalizatzearekin batera, gazte euskaldunen sare berri bat sortu eta elikatu nahi du EuskarAbenturak. Horrekin batera, Euskal Herriko natura, historia eta kultur ondasunaren inguruko transmisioa bermatu nahi dute. Ziurtatu dutenez, "EuskarAbentura esperientzia bizitzeak badakar, berez eta izatez, hainbat baloreren lanketa, hala nola,

parekidetasuna, elkarbizitza, elkarrenganako errespetua, ardura eta zaintzak, bizi-ohitura jasangarri eta osasuntsuak, edota turismo-eredu jasangarria". EuskarAbenturako parte hartzaileen artean daude 20 arabar, 37 bizkaitar, 37 gipuzkoar, 7 lapurtar, Nafarroa Garaiko 28 lagun eta Nafarroa Behereko 1.128en artean bederatzi sakandar daude. Beste batek ere parte hartu behar zuen, baina min hartu du eta ezin izanen du espediziora joan. Gazteekin batera 30 helduk osatuko dute ibil-

bidea. Gazteek elastiko laranja jantziko dute, urdina helduek.

Sakandarrak

Donemiliagan X. mendi inguruan idatzitako *Jzioqui dugu guc ajutuez dugu* glosagatik hartzen dute espedizioako kideek jzioquitar izena. Aurten bederatzi jzioquitar sakandar daude: Leire Mendinueta Azpiroz eta Maia Novoselsky Jaka arbizuarrak, Ainhoa Astiz Lopez de Goikoeitea urdindarra, Eneko Andueza Martinez de Apellaniz, Irati Rubio Bergara, Jare M. A., Katrin Andueza Zornoza, Itziar Anton Garcia altsasuarrak eta Olatz Bados Andueza olaztiarra dira. EuskarAbenturaren berri nola izan zuten galdetuta, Leirek azaldu duenez, ikastetxera aurreko edizioan parte hartu zuten neska eta mutiko bana joan ziren eta espedizioaren berri eman zieten. "Beraien esperientzia kontatu ziguten, nola ibili ziren, izena emateko egin beharrekoak ere". Gainontzeko kideek Leirek esandakoa berretsi dute. Entzun eta ikusi zuten aurkezpenetik Katrini gehien gustatu zitzaiona izan zen "jende berria ezagutzeko esperientzia bikaina



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



izanen zela, euskalki berriak praktikatu ahal izateko eta mendiak eta lekuak ezagutzeko" aukera. Ados azaldu dira gainontzeko zortzi espedizio kideak.

EuskarAbenturan izena emateko arrazoiak ugariak dira. Maia ez zen aurkezpenaren egunean egon, "baina hurrengo egunean lagunek zer zen kontatu zidaten eta gustatu zitzaidan, halako gauzak gogoko ditudalako. Izena eman nuen, galdetu nuen eta beste inork ez zuen eman nahi". Ainhoari aurkezpenean entzundako guztia erakarri zuen, "esperientzia oso ona izango zela ikusi nuen eta batzuk izena ematera animatu ginen, eta ikastolatik bi aukeratu gaituzte". Jarek uste du EuskarAbenturan parte hartzea kultura eta jende berria ezagutzeko aproposa dela, "Katrinek esan bezala, euskalki berriak ezagutzeko eta kirola egiteko ere aproposa dela uste dut". Enekok aurreko ikasturtean espedizioaren berri izan zuenetik garbi zuen joan nahi zuela, "Jende asko ezagutzea, kirola egitea... plan bikaina, kristorena iruditu zitzaidan. Niri kirol egitea nahiko gustatzen zait. Gainera, txikitatik udalekuetara joan izan naiz eta primeran pasatzen nuen". Bigarren saiakeran aukeratu dute.

Itziarri ikastetxeko aurkezpenak arreta piztu zion. "Lagunekin izena emateko hitz egin nuen, baina bakarrik eman nuen. Banekien beste batzuk lana aurkeztu zutela. Jende berria ezagutzeko, harreman berriak sortzeko eta leku eta euskalki berriak ezagutzeko" eman du izena. Iratiren anaiaren lagun batzuk duela bizpahiru urte parte hartu zuten EuskarAbenturan. "Esan zidaten nolako zen. Aurreko urtean apuntatu ginen gelako batzuk, baina ez ziguten onartu eta aurten berriro eman dugu izena eta batzuk aukeratuak izan gara". Olatzek ere aurreko urtean izena emandakoa da, baina ez zuten aukeratu, bai, ordea, bere koadrilako bi. "Buelatatu zirenean beraien esperientzia kontatu zidaten eta aurten berriz saiatu naiz". Leireri kirola asko gustatzen zaio eta, batez ere, jende berria ezagutzea. Katrinek espedizio kideen arrazoi berak eman ditu izena emateko. Enekok joan den urtean lagun batekin batera egindako abesti batekin proba egin zuen eta aurten historia proiektu bat aurkeztu du. "Arro-



pa k urte-t a n izanda-ko bila-kaerari buruzko azterke-t a b a t egin dut. Zer arropa eta zenbat arropa zuten gure aiton-amonak eta zenbat erabiltzen dugun gure orain. Bilakaera".

Lana

EuskarAbenturan izena eman ondoren hautaketa prozesu bat pasa behar da. Lan bat eta aurkezpen bideo bat bidali behar da. Lana proposatutako hiru gaitetako baten inguruan egin behar zuten: gure aisiaren espazioa: porlana vs. ingurune naturala; fast fashion vs. modu jasangarriari janzteko ereduak eta zer ginen, zer gara, zer izango gara. Izena emandakoek aurkeztutako lanak Eusko Ikaskuntza eta PuntuEUS fundazioko 20 kidek aztertu zituzten eta epaimahaiaren galbahearen arabera hautatu zituzten parte hartzaileak.

Sakandarrek denetariko lanak aurkeztu zituzten. Olatzek azken gaia aukeratu zuen eta "egune-



roko baten moduko ipuina" idatzi zuen. "Antzinako baserriko istorio bat kontatu nuen. Amona batek bere egunerokoa idazten zuen. Urte batzuk pasa ondoren bere ilobak aurkitu eta berak ere eguneroko idazten zuen". Iratik ere gai bera duen ipuin bat aurkeztu zuen, baina aitortu duenez, "kaka bat da. Ez dakit zergatik aukeratu nauten. Lagunekin poteatzen dagoen emakume bat ikusten du nola aldatu izan den, lehen jendeak euskaraz hitz egiten zuela, orain gutxiago. Iraganean euskararekin zer gertatuko zen pentsatzen zuen". Itziarrek, berriz, gaiarekin zalantzak izan zituen. "Azkenean EuskarAbentuari, etapei eta han egiten diren harremani buruz hitz egiten zuen

abesti bat egin nuen ahotsa eta gitarrarekin".

Jarek Altsasuko Agate deunari buruzko lana egin zuen: "nirer amonaren esperientzia grabatu, gero nire

amarena eta nire ahizparena. Emakumeak ospakizun horretan nola bizi ziren eta nola bizi dira gaur egun azaldu nuen; aurrerapenak egon direla, lehen emakumeek ez zutela plazan dantzatzen eta orain bai, lehen ezin zirela bazkaritara joan eta orain bai, eta halakoak". Ainhoak "hasiera-hasieratik" bazekien margolana eginen zuela eta hirugarren gaia aukeratu zuen. Irudia batez ere akuarelekin egin zuen, nahiz eta errotulatazailak ere erabili. Margoaren haren esanahia azaldu zuen. Maiak hirugarren gaia oinarri hartuta ipuina idatzi zuen: "gure neskato gazte bat bere amonarekin baserri batean bizi zen eta amonak bere nerabegaroko istorioak kontatzen ditu, baina gauza politetan oinarrituta.

Neskak garai horietara joateko ametsa du. Eta egun batean esnatu eta bere amona da. Esperientziak bizitzen ditu. Kasualitatez gerra zibilean daude. Neskak bere garaira bueltatzen da eta ohartzen da direnagatik direla gaur egun". Maiak azaldu duenez, "Katrinek ipuina garatzen lagundu zidan".

Katrinek argi zuen margolana aurkeztuko zuela, eta, azkenean, hirugarren gaia aukeratu zuen eta triptikoa osatu zuen denbora bakoitzari zati bat eskainiz. Haren bidez adierazi nahi zuen "daramagun bizimoduarekin, naturarekin eta inguratzen gaurarekin bukatuko dugula". Leirek ere margolana aurkeztu zuen, "lehengo biziari eta oraingoari buruz. Agure batek bere haurtzaroa gogoratzen eta gero agertzen dira nerabe batzuk mugikorrarekin".

Ibilbideaz

Espedizioan egin beharreko ibilbidea aztertu duten galdetuta, "zaila, oso gogorra" dela azaldu dute, Enekoren ustez itxura ona du. Entrenamenduez galdetuta, gehienak oraindik ez direla hasi esan dute, ikasturtea despeditzean hasiko dira. Garbi dute entrenatuta joan beharko dutela. Neskak toki zehatz bat ezagutzeko gogorik ez dute, "dena ezagutu nahi dugu", esan dute. Enekok, ordea, Iparraldeko hiru lurraldeak, hango jendea, eta Bizkaia gehiago ezagutzeko gogoz abiatuko da, gainontzeko lurraldeak ezagutzen dituelako. Espedizioaren izena osatzen duten bi hitzetako bat aukeratzeko eskatu eta "zaila" dela adierazi dute. Bien artean aukeratzen ez dakiela esan dute Leirek, Jarek, Itziarrek. Katrinek euskararen alde egin du. Maiak abenturaren alde egin du, "zeren azkenean, euskara badugu". Eneko ere abenturak erakartzen du, "euskalduna kontsideratzen naiz, aparte da, euskararik gabe ongi pasa edo abentura bat izan dezaket. Baina horrela hobe". Ainhoak, Iratik eta Olatzek ere abentura aukeratu dute.

Aurtengoa edizio jendetsuena dela jakinarazi du Maiak. Heldu den astean Whatsapp taldea sortuko dutela jakinarazi dute. Eta, apika, beraiek izanen dira heldu den ikasturtean ikastetxeetan EuskarAbenturari buruzko azalpenak emanen dituztenak.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Malgutasuna eta aukerak

Ikasturtearen azken txanpan gazteak buru-belarri ibili dira ikasketak ateratzeko ahaleginetan. Batzuk nekez, besteak ez hainbeste; hala ere, sekretu handiegirik ez; gogoa, lana eta segitzeko grina. Askorentzat motibazio falta izaten da aurrera egiteko, eta horretan hezkuntza sistemaren ereduak zerikusi handia du.

Orain, badirudi hezkuntza sisteman aldaketak burutzeko lege berria aztertzen ari direla. Horren harira, beti gogora etortzen zaizkit Julian eta Karlos, anaia eta lehengusu bat, hogeitahogeita bost urteren bueltan Kaliforniara joan zirenak. Hemen ziren bitartean eskola kontuetan deus gutxi, eta langabezia eta eskasia franko ibiltzen zuten, izan ere, 90. hamarkadako krisi gogorraren garaiak ziren. Orduan ere! Bada, hara joanda, ahaideen arrimuan lanean hasi ziren San Franciscoko badian. Julian, zurgin-laguntzaile etxeen eraikuntzan; Karlos, jateko tipiko amerikarra eskaintzen duen Chevys batean zerbitzari. Hango hezkuntza sistemak horretarako aukera anitz eta malguak eskaintzen dituenek, lan egin bitartean, biak hasi ziren Community College horietako batean ikasten, ingelesaz gain konputargailu bidezko diseinu grafikoa. Biek burutu zuten garai hartan oso berritzailea zen aurre-gradu hura, eta berehala hasi ziren informatikari lanetan. Gaur egun, Adobe enpresa erraldoiarentzat ari dira.

Haien eta beste batzuen esperientziak entzunda, argi dago hango hezkuntza sistemak beste aukera batzuk eskaintzen dituela. Bai arlo teknikoan, baita graduko ikasketetan ere, gaitegi zabala eta malgutasun handia dago bakoitzaren ikasketa ibilbidea antolatzeko. Batxilerra eta unibertsitateko graduaren artean Community College horiek daude, bi urteko aurre-graduako titulua eskaintzen dutenak. Helduak ere, erraztasunez birziklatzen dira, edo hobetzen dute haien kualifikazio profesionala, goizez ala arratsaldez ikasteko aukera izaten baita. Bestalde, metodologiari dagokionez, ikaslearen partaidetza sustatzen da. Pelikuletan bezala, solasaldiak eta eztabaidak edo aurkezpenak. Klase magistralak baino, komunikatiboak eta praktikoak. Izan ere, Kalifornian, bizitzaren denborak erritmo biziagoa du, bidean malgutasun handiago eta aukera gehiago topatzen baitira. Hori horrela, Nafarroako Parlamentuan estatus berria eztabaidatu nahi dela eta, noizko Nafarroako hezkuntzako sistema propioa?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Begirada Ezberdin Bat (i) ekin eta aniztasunaren edertasunaz zein aukerez jabetu eta gozatu!

ANITZARTEAN KULTURARTEKOSUN ZERBITZUA

Joan zen urtean, 2021ean, zurrumurrueen kontrako betaurrekoak jartzeko gonbidapena ekarri genuen Sakanara ANITZARTEAN zerbitzutik. Zertarako? Zurrumurruetatik libre, benetako egia, errealitate, hobe, argiago, den bezalakoa ikusteko. Txutxumutxuak, edota zurrumurrueak partekatzeak, zabaltzeak dakartzten kalteez jabetze aldera, hortaz, haiek zabaltzea saiheste aldera. Oraingoan aldiz, Begirada Ezberdin bat (i) ekitea da proposamena. Begirada ezberdin batekin aniztasunak dakartzan aukerak, baloreak, bizipenak, esperientziak, eta ikasketak ikusiaz, haiez

gozatzeko bidea eskaintzen dizuegu. Mehatxu, beldur, mesfidantza... etatik at, begirada amankomunean dugunari, aukerari, elkar trukatzeko/ikasteari jartzeko gonbidapena dakarkizuegu. Nola? Moduak ere anitzak dira: aurten Sakanara Begirada ezberdin bat argazki erakusketa dabil eskualdeko hainbat herrietan barrena: Altsasu, Lakuntza, Arruazu, Urdiain... eta oraintxe, ekainaren 26ra arte, Irurtzango Pikuxar euskal txokoan. Bertan, Nafarroako bizilagunen bizi-esperientzia plazaratzen dituzten argazki eta bizipenak daude ikusgai. Erakusketarako argazkiak Unai Beroiz argazkilaria eta kazetari nafarrak eginak dira. Erakusketa bera, aldiz, Pobreziaren kontrako

Nafarroako Sareak utzitakoa da. Ez da, ordea, begirada ezberdin bat izateko aukera bakarra, ez munduan ezta Sakanan ere. Horretarako hainbat proposamen baditugu: inolako epairik gabe jokatu; adierazi benetako interes ezberdina denarekiko; saiatu bestearen tokian jartzen; zurrumurrurik ez partekatu; oroitu eskubideak unibertsalal direla; joan gertakizunen errora; oroitu inor ez dela ilegala; migratzea eskubidea dela eta hitzak ez dituela haizeak eramaten, aztarna uzten baizik. Hortaz, zain dezagun gure hitza eta hizkera. Zentzurik baikorrenean, Sakana ezberdin baten alde. Eskerrik asko.

Telegram kanal berria

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidar Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Gobernuak egindako eskaintzak ez ditu grebalariek ase

Haur Hezkuntzako langile grebalariek haien eskaerei aurre egiteko 34,7 milioi euro behar direla diote

SAKANA

Haur eskoletako hezitzaile eta langileek 37. greba eguna dute gaur. Soldatak igo eta hezitzaile bakoitzeko ume kopurua jaitsi eta Europarekin parekatzea eskatzen dute. Nafarroako Parlamentuan egindako agerraldian azaldu zuten, beraien eskaerak betetzeko 34,7 milioi euro behar dira. Gaur egun Haur Hezkuntzara 15,8 milioi bideratzen dira, Europak aholkatzen duena baino askoz gutxiago grebalariek adierazi dutenez. Parlamentuan eskatu zuten haur eskolen doakotasunaren aldeko apustu argia egitea eta finantzazio moduluak %92 eta %146 artean igotzea.

Hezkuntza Departamentuak grebalariei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko kideei jakinarazi dienez, heldu den ikasturterako 4.250.000 euro inururuko igoera aurreikusten du,

soldatak igoz zuzendari, hezitzaile eta garbitzaileei. Horretarako, moduluetan soldatei dago-kiena aldatuko luke gobernuak. Hezitzaileen lan karga txikitze-ko eta hezkuntza arreta hobetze-ko laguntzaileen kontratazioa ere aurreikusi du. Baita ordezkapenak hobetzea ere.

Grebalariei gobernuaren proposamena "kopuru txikiagatik, eskasa" iruditzen zaie. "Ez da 0-3 zikloaren kalitatearen aldeko apusturik egiten. Eskaintzen duten hezkuntza errefortzua oso txikia da, COVID errefortzuaren antzekoa da". Gaineratu dutenez, "unitate bat edo bi dituzten haur eskolak dirulaguntzarik gabe geratuko lirateke. Soldatei dago-kinez, soldata oinarria igotzen da soilik, osagarririk ez dago". Beraz, haien "eskakizunetatik urruti dago" gobernuaren taula.

Terapiarako patioa mustu du klinikak

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoan eraberritu duten patioak familia giroa sortzea du helburu, demenzia duten erabiltzaileen eta pazienteen partaide izate sentimendua, erabilgarritasuna eta independentzia sustatuz

ALTSASU

Klinikaren erdigunean dagoen patioak zuhaitzak baino gehiago du orain. Izan ere, lurra berdez margotu, bide bat egin, hainbat aulki jarri eta sei txoko prestatu dituzte: erlaxazioa, oroitzapena, usaimena, ukimena, terapia baratza eta oreka plataforma. Kanpoko aldean oilategia jarri dute. Haien guztien helburua da erabiltzaileen artean ahalik eta zentzumen gehien piztea. *Palmjöf* terapiarako lorategien eredu oinarritu dira klinikako patioa eraberritzeko. Eredu horren arabera erabiltzaileen aldardean aldaketa positiboak eta indar fisikoaren hobekuntza eragiten

dituen eredu bat sortu dute, gune seguruak sortuz, non erabiltzaileek sentitzen duten beren eguneroko bizitza aberastu dezakete. Klinikako COVID-19 gaitzari aurre egiteko neurriak indarrean daudenez, talde burbuilak daude eta, ondorioz, terapiarako patioan goizetan eguneko zentroko erabiltzaileak egonen dira eta arratsaldean ospitalekoak.

Klinikako okupazio terapeuta Loreto Velillak azaldu duenez, "patioa eta bertako txokoak erabiliz erabiltzaile eta pazienteek gehiago ibili ahal izango dira, memoria eta esperientzia positiboak sortuz, estresa gutxitzen lagunduz eta lo zikloak egonkor-

tuz, argi naturalari esker". Gaineratu duenez, "patioa erabiltzaileen behar espezifikoaren arabera diseinatu da, hau da, demenzia motaren bat duten adineko pertsonak, eta lehengoratzeko edo errehabilitazio prozesuan daudenendako". Angel Gardachal klinikako gerenteak azaldu duenez, "ingurune seguru bat diseinatu da, osasuna eta ongizatea maximizatzeko, proaktibitatea sustatzeko eta erabiltzaileek ahalik eta gehien modu autonomoan eta aktiboan bizi ahal izan dezaten". Patioa egokitzeko klinikak Laboral Kutxaren laguntza jaso du eta ordezkariak herenegun bisitatu zuten.

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ARBIZU
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
UHARTE
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ERGOIENA
libre!

Mank
s a k a n a



UTZITAKOA

Lakuntzako ikasleak sarituta

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Emakume zientzialaria izan nahi dut eskola lehiaketa antolatu du. 91 lan aurkeztu ziren eta Lakuntzako eskolako Lehen Hezkuntzako 3. mailako 15 ikaslek munduko 13 emakumezko zientzialariri buruzko lana aurkeztu eta saria lortu zuten. Gainera, tailer batean parte hartu eta unibertsitatea bisitatu zuten.

Aralarko turismo bulegoan 6.075 bisitari zenbatu ziren

Aralarko turismo bulegoak joan den urtean 6.075 bisitari zenbatu zituen, haiei 2.175 arreta eskaintzen bidez argibideak eman zizkieten. Bisitari gehienak Nafarroa, Gipuzkoa, Bartzelona, Madriletik joandakoak ziren. Estatuakoak, guztira, 5.741 bisitari izan ziren, eta atzeritik joandakoak, berriz, 334 izan ziren.

Haien artean frantsesak nabarmentu ziren.

Plazaola turismo partzuergoak eta Sakanako Garapen Agentziak (SGA) elkarrekin kudeatzen dute Aralarko bulegoa. Aurten gari-laren 1etik agorrilaren 31ra egonen da zabalik. Han lan egiteko informatzaile bat kontratatu nahi du SGAK. Interesa dutenek beraien eskabideak SGAK duen bulegoan aurkeztu beharko dituzte, asteleheneko 15:00ak baino lehen. Lanaldi osoko eta C mailako kontratua eskaintzen da.

Festa ereduaren lanketa feminista eskatu dute

Feministek festak antolatzen dituztenei ospakizunen antolakuntzan kontuan izateko bost eskaera egin die. Bestalde, gizonezkoei festetan zaintza eta etxeko lanak bere egitea eta erasoen aurrean jarrera aktiboa izatea eskatu diete

SAKANA

Festen garaia bertan dago eta udalak, herrietako batzordeak eta eragileak haiek antolatzen ari direla jakinik, Sakanako mugimendu feministako kideek ospakizunen antolatzaileri egitarauak egiterakoan bost gai kontuan izateko eskatu diete. Alde batetik, festen antolakuntzan herrietako talde feministen eta emakume anitzen parte hartzea bermatzea edota horien ekarpenak eta proposamenak kontuan hartzea. Bestetik, egitarauak prestatzerakoan genero estereotipoak eta rolak irauli eta balio eta eredu eraldatzaileak lantzen dituzten jarduerak programatzeko eskatu diete.

Horrekin batera, mugimendu feministatik festen antolatzaileri eskatu diete "emakume* sortzaileak eta kultur gileak protagonista diren ekimenak antolatzeko". Aldi berean eskatu diete "emakumeek* hainbat esparrutan egin dituzten ekarpenak aitortu eta balioa emateko". Eta, azkenik, festetan gertatzen diren eraso matxista, lesbofobo, homofobo, transfobo eta arrazistak arbuizatzeko eskatu dute.

Gizonezkoak

Mugimendu feministako kideek festei begira gizonezkoei bi es-



Festa "jendartea antolatuta dagoen moduaren eta ditugun balioen isla da".

kaera egin diete. Lehenik, "jaieran ere etenik ez duten zaintza lanak (haurrena, adinekoena edo mendekotasuna dutenena) eta etxeko lanak (jatekoak prestatu, arropa garbitu...) beraien gain hartu eta erantzunkidetasunez jokatzeko" eskatu diete. Bigarrenik, gizonezkoei "gerta daitezkeen erasoen konplize ez izateko eta horien kontrako jarrera aktiboa hartzeko" eskaera egin diete. Festa giroan izaten diren erasoetako batzuk zerrendatu dituzte: esan eta txiste matxistak, ukituak, irainak, mespretxuak...

Feministek azaldu dutenez, "festak herritar guztiendako gozagarri izan diren espazio seguruen alde lanean jarraituko dugu, besteak beste, eraso sexistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloak herrietan eta tokiko eragileekin landuz". Izan ere, "jai eremu eta guneetan euforia eta hainbat drogen kontsumoaren ondorioz eta 'dena libre' denaren aitzakian, ohikoak dira emakumezkoen eta bestelako genero identitate eta adierazpenekiko hainbat eratako eraso matxistak".

SOROSLEA

Aurtengo udan Urdiaingo igerilekuetan sorosle moduan lan egiteko interesa izanez gero, jar zaitez elkarteko juntakideekin kontaktuan.

IGERILEKUAK ETA TABERNA

Urdiaingo igerilekuak eta taberna hartzeko interesa baduzu, idatzi Aitziber elkarteko postara.

Animatu zure lagun, familia edo talde batekin!

aitziberurdian@gmail.com

TABERNA-JATETXEA ALOKATZEN DA LAKUNTZAN

Informazioa: 607 469 500

kaxeta
LIBURUDENDA

Zure bertako liburu denda

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

Mugitzeko

... #BesteModuBatBadago

Raulek auto
elektrikoa eskuratu
du, eta Maitane
bizikletaz ibiltzen
da egunerokoan



4/2022 Foru Legeak, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoak, ezartzen du 2025erako 500 biztanle baino gehiagoko toki-entitate guztiek kargagune bat eduki beharko dutela automobil, ziklomotor eta bizikleta elektrikoetarako.

Lagunduko dizugu. Egin dezagun aurrera gizarte berdeago baterantz; garraio publikoaren alde eta aztarna ekologiko txikiagoa duen mugikortasun baten alde egiten duen gizarte baterantz.

nafarroagreen.eus

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



 REACTIVAR NAVARRA
NAFARROA SUSPERTU
2020-2023

 navarra
nafarroa
green

FESTAK

LIZARRAGA

SAN ADRIAN FESTAK

EKAINAK 18 Larunbata

10:30 Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera igoera.

13:00 Meza, mendian.

17:30 Kalejira Amalur taldearekin, mendian.

18:30 Menditik jaitsiera.

19:00 Auzatea, alkatearen etxean.

19:45 Lizarragako zortziko dantza eta 2019an, 2020an eta 2021ean jaiotako haurrei festetako zapia ematea, plazan.

21:00 / 00:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin, plazan.

22:00 Herri afaria, frontoian.

EKAINAK 19 Igandea

12:30-14:30 Haurrendako puzgarriak, tandem eta balanz bikes, frontoian.

13:00 Kalejira Amalur taldearekin.

16:30-19:30 Haurrendako puzgarriak, tandem eta balanz bikes, frontoian.

19:00 Auzatea, plazan.

19:30 Puro Relajo taldearen kontzertua.

EKAINAK 20 Astelehena

11:00 Gosaria Iñaki Bizkai akordeoilariak girotuta, plazan.

15:00 Kuadrilen bazkaria, plazan.

19:00 / 23:30 Auzatea eta dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin, plazan.

21:00 Herri afaria, plazan.

ARBIZU

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 23 Osteguna

19:00 Brindisa eta suziria, plazan.

19:30 San Juan ermitara igoera Jaiak txarangarekin.

20:00 Bezperak, San Juan ermitan.

20:30 Marialonbreren zaldiya dantza eginen dute kintoek, San Juan ermitan.

21:30 Jaitsiera Jaiak txarangarekin.

23:00-04:00 Dantzaldia Trikiteens taldearekin, plazan.

EKAINAK 24 Ostirala

10:30 Dianak Jaiak txarangarekin.

11:00-13:00 Puzgarriak eta buruhandiak, plazan.

11:30 San Juanera igoera txarangarekin.

12:00 Meza nagusia, San Juan ermitan.

12:30-14:30 Los viajeros de Irapuato mariatxi musika eta dantza taldearen emanaldia.

17:30-19:30 Kalejira Jaiak txarangarekin.

23:00 Euskabaret ikuskizuna, plazan.

02:00 Rodeo taldearen kontzertua, plazan.

UHARTE ARAKIL

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 23 Osteguna

18:00 Suziria, plazan. Festen hasiera erraldoi eta buruhandiekin. 2021ean



ARTXIBOA

ARBIZU Bi urte "luze" ondoren San Juan festak ospatuko dituzte Arbuzun ekainaren 23tik 29ra, eta Petralak eta Kezkabayek, 2003 eta 2004 urtetan jaiotako kintoek, festa "poliitek" pasatzea opa diete arbuzuarrei. Ekainaren 23an, 20:30ean, Marialonbreren zaldiya dantzakia eginen dute San Juan ermitan.

jaiotakoei zapi banaketa. Auzatea jubilatuen eskutik.

22:00 Suen piztea herrian zehar.

Kaleko argien itzaltzea eta zanpantzarren irteera.

24:00-03:00 Bizirromeria taldearen kontzertua, plazan.

EKAINAK 24 Ostirala

12:00 Erraldoi eta buruhandiekin kalejira.

13:00 Auzatea eta Uharteko Dantza Taldearen emanaldi sorpresa, plazan.

13:30 Uharteko zortzikoak, plazan.

14:30 Herri bazkaria, gazteek antolatuta.

18:00 Kalejira Eztanda txarangarekin, gazteek antolatuta.

18:30 Buruhandiak.

20:00 Patata tortilla txapelketa eta auzatea, plazan.

20:00-22:00 Iratzar taldearen emanaldia, plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

24:00-04:00 Kontzertuak: Haizkan, Rude Ska eta Aka-Boh taldeak. Gazteek antolatuta.

IZURDIAGA

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 23 Osteguna

20:00 Suak piztea.

22:00 Afari autogestionatua.

EKAINAK 24 Ostirala

20:00 Txupinazoa kiliki eta trikitilariekin.

22:00 Kalderete afaria.

24:00 Dantzaldia Felis DJ-arekin.

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

AIZKORBE

EKAINAK 23 Osteguna

ILUNTZEAN haurrendako jolas

perkean elkartuko dira eta sua eginen

dute. Han afarirako jakiak prestatuko dituzte. Afuldu ondoren, su gainean saltoka ariko dira.

ERROTZ

EKAINAK 23 Osteguna

21:00 Nafarroa plazan elkartuko dira eta sua piztuko dute. Apaltzen denean afaria prestatzeko erabiliko dute. Afariaren ondoren, su gainean saltatuko dute.

IRURTZUN

EKAINAK 23 Osteguna

22:30 Udako solstizioaren festa: Joaldunak, Iskidiko pertsonaia mitologikoak eta suak, plazan. Aizpea euskara taldeak eta Pikuxarrek antolatuta.

ETXARREN



BIKAIN GARAJEA



Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

Ongi pasa festetan!

948 460 037 Arbizu

FLORES



Ongi Pasa festak!

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499

Nafarroako berezko txistorra.



BUXEK

Ongi pasa festak!

@buxek_ileapaindegia

Fernando Urkia 1,
Arbizu
948 461 698

LONBREN DENDA ZURE EGUNEROKO

ONGI IBILI SAN JUANETANI!



Tel.: 948 460 330
Kale Nagusia - ARBIZU



San Kiriko eta San Adrian

Pandemiagatik bi urtez modu berezian ospatu ondoren, ekainaren 13an eta ekainaren 16an Etxarri Aranazko bi egun handi ospatu zituzten. Astelehenean, Etxarriko patroia den San Kiriko egunean, Andra Mari ermitan merenduak egin zituzten etxarriarrak, eta atzo, osteguna, San Adrian eguna, izen bereko ermitan erromeria egin zuten.



Trinitatera gora

Aurreko igandean Trinitatearen eguna ospatu zuten bakaikuarrek eta iturmendiarrek Urbasako Santa Marina ermitara erromeria eginez, eta irurtzundarrak Ergako Trinitate ermitara igoz. Trinitatearen hurrengo igandean, hau da, ekainaren 19an, Korpus eguna ospatuko dute Lakuntzan, Arbuzun eta Urdiainen.

EKAINAK 23 Osteguna

19:00 Sua piztuko dute eta afaria prestatuko dute.

EKAI

EKAINAK 23 Osteguna

21:00 Plazan, iturriaren ondoan, sua piztu eta afaria prestatuko dute.

ZUHATZU

EKAINAK 23 Osteguna

19:00 Autobus geltoki parean sua eta otamena egingen dute.

SATRUSTEGI

EKAINAK 23 Osteguna

ILUNTZEAN sua piztuko dute eta barbakoa egingen dute. Ondoren, Levelibular konpainiaren suzko malabare ikuskizuna izanen da.

HIRIBERRI

EKAINAK 23 Osteguna

20:00 Txiteraren ondoan elkartuko dira, sua piztu eta haren gainean saltoka ibiliko dira. Elkarrekin otamena eskainiko du.

IHABAR

EKAINAK 23 Osteguna

21:30 Sua egin eta txistorrak eta sardinak prestatuko dituzte. Eguraldiagatik plazan egitea aztertzen ari da kontzejua.

IRANETA

EKAINAK 23 Osteguna

20:30 Frontoiaren eta Txapel Azpi elkarrearen atzeko aldean elkartuko dira eta otamena izanen da. Ondoren, sua piztuko dute eta saltoka ibiliko dira.

ARRUAZU

EKAINAK 23 Osteguna

22:00 Su handia piztuko dute eta kanpai dorrean igotakoek ezquila errepika egingen dute.

LAKUNTZA

EKAINAK 23 Osteguna

ILUNTZEAN Auzoka suak piztu eta afariak. 22:00-24:00 Elizako ezquila dorreko atea irekita egonen dira. Bertan auzatea izanen da.

DORRAO

EKAINAK 24 Ostirala

19:00 Errosarioa San Juan ermitan. 20:00 Ogia, gazta eta ardoa.

LIZARRAGA

EKAINAK 23 Osteguna

ILUNTZEAN Afari merendua, Intxorreta karrakako aldamenen. Ondoren, sua piztu eta haren gainean satoka ariko dira.

LIZARRAGABENGOA

EKAINAK 23 Osteguna

22:00 Plazan sua egingen dute eta haren gainetik salto egingen dute.

ETXARRI ARANATZ

EKAINAK 23 Osteguna

Karrika bakoitzak bere sua piztuko du eta haien inguruan elkartuko dira aldamenak.

BAKAIKU

EKAINAK 23 Osteguna

17:00 *Maddi pirata* antzezlan, frontoian. 19:00 Meriendak. 20:00 Auzatea. 22:00 Sua piztea.

EKAINAK 24 Ostirala

EGUNEAN ZEHAR Puzgarriak. 17:00 Opil banaketa, udaletxean.

URDIAIN

EKAINAK 23 Osteguna

19:30 Herriko etxetik San Juan ermitara abiatuko dira. Ermitako plazan, meza egin ondoren, sua piztuko dute eta neska gazteek San Joan Kantaita abestuko dute eta dantzari txikiak dantzatuko dute. Auzoka afariak egingen dituzte.

ALTSASU

EKAINAK 23 Osteguna

17:00 Txupinazoa trikitalariak lagunduta eta animazioa Tramankulurekin, San Juan plazan. 18:30 Txokolate jana eta Chuchín Ibáñez y los Charros, San Juan plazan. 19:30 Udalbaltza Altsasuko txistulariekin udaletxetik San Joango ermitara abiatuko da. Foru plazan, Udako solstizioa ospatzeko festa eta auzatea, Kukuerekek antolatuta. 20:30 Festaren hasiera: San Joango ermitan sua piztea eta herriko suak pizteko txupin iragarlea. Kalejira San Joan ermitatik plazaraino, Altsasuko Txistulariek lagunduta. 21:30-22:00 Eztanda txarangak suak dauden kaleak girotuko ditu. 23:00-02:00 Dantzaldia Azabache taldearekin, San Juan plazan.

EKAINAK 24 Ostirala

20:00 Zortzikoa eta auzatea, Foru plazan. 22:30 Haize Berriak Bandaren emanaldia, Foru plazan.

ZIORDIA

EKAINAK 23 Osteguna

18:00 Batuekora erromeria, eta auzatea. 21:00 Herri afaria. 22:30 Plazan su handia piztu eta gainean saltoka ibiliko dira.

Autoen seguruak

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO
IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

Zure esperientziarik onena
PREZIO ONENEAN

Udako jaietan
egizu gurekin topa!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 457 317 • 994979279 • Gaithegi auzoa 11 • ALTSASU

BiLTOKi
TABERNA • JATETXEA

**Eguneko
menua 11 €**

**Menu
berezia 15 €**

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu



Amaia Los Arcos Larunbe.

"Etxeen energia birgaitzeari buruzko interes handia dago"

AMAIA LOS ARCOS LARUNBE NASUVINSAREN IBARREKO BULEGOKO ARDURADUNA Laguntza teknikoko zerbitzu berriak MANK-en Lakuntzako egoitzan dago eta etxebizitzaren energia birgaitze proiektuak dinamizatzen ditu

SAKANA Nasuvinsak etxebizitzaren energia birgaitzea sustatu eta laguntzeko Larraun eta Sakanarako bulegoa zabaltzen du Lakuntzan Sakanako Mankomunitateak duen egoitzan. Zerbitzu berria lehendik han dagoen Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoaren osagarria izanen da, biak "elkarlan estuan" ariko dira, elkarren "osagarriak" baitira. **Zer da Elena Primavera proiektua?** Nafarroako eskualde guztietara Nasuvinsak duen esperientzia

eramaten du. Guk aholkua eta laguntza teknikoak ematen diegu bai udalei bai partikularrei. Gainera, energia birgaitze proiektuak garatu eta jaso daitezkeen dirulaguntzak lortuz. Jendea proiektua bideratzeko gauzak erraztea

"LEHEN PAUSOA LITZATEKE KONTSUMOA MURRIZTEA INGURATZAILE TERMIKOAREKIN"

eta prozesu osoan laguntzea da gure lana.

Etxeen energia birgaitzea zer da? Gure etxeek kontsumitzen duten energia murriztea da. Horrela, gure etxebizitzaren isuriak jaisten dira. Dirua aurreztuko dugu, eta klima aldaketaren kontrako pauso bat da. Nafarroako etxeen erdiak baino, 300.000k baino gehiagok ez du inolako isolamendurik, behar handiak dituzte. **Fatxadak, leihoak...** Inguratzaile termikoari buruz hitz egiten dugu gure

etxeen azala da: estalkia, leihoak, fatxadak... Berogailurik gabeko azalera guztia.

Eta berokuntza sistema?

Energia birgaitzeaz hitz egiten dugunean lehenengo pausoa izanen litzateke gure kontsumoa murriztea inguratzaile termikoarekin. Bigarren pausoa litzateke instalazioekin lotuta dagoena. Behin gure kontsumoa murriztu dugula, gure etxea zer nolako energiarekin berotu azter dezakegu. Horretarako ere dirulaguntzak badaude.

Etxebizitzak aztertu dituzue?

Herriak aztertu genituen eta eraikuntzen urteekin duten zaurgarritasun maila ikusi da. Dauden lehentasunak jakinda, lana alde batera edo bestera zuzentzeraz eraman gaitu. 1980 aurreko etxebizitza asko dago. Ordura arte ez zegoen eraikinen inguruko termika araudirik. Intereseko eremu asko daude. Garrantzitsua da jakitea Europako dirulaguntza horiek familia bakoitzeko etxebizitzak ere hartzen dituztela, orain arte kanpo baitzeuden. Hemen halako asko dago, eta dirulaguntza eska dezakete.

Halako lanak egiteko interesa dago?

Handia. Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoari esker aurretik energia birgaitze asko egin da ibarrean. Beste eskualde batzuekin alderatuta abiatzeko abantaila da, jendeak badakielako zertaz ari garen hitz egiten.

Lanak egin ondoren, zein da aldea?

Halako lanak egin dituzten jendeak konforta, erosotasuna, aipatzen du gehien. Orain etxean lehen baino askoz hobe egoten dela esaten dute. Badaude etxeak gabekia termiko oso handiak dituztenak, esaterako korranteak, azkar hoztea, hotsak, hezetasunak... Halakorik gabe bizi ahal izatea da jendeak gehien baloratzen duena. Kontsumoak dezentet murriztu daitezke, beti ere, abiapuntuaren arabera. Zaharberri ondoren, energia kontsumoa desberdina da.

Jendearekin harremanik al duzue?

Bai eta pisuen komunitate bileretara azalpenak ematerajon behar badugu, joaten gara. Gure helburua jendea informazioa

BULEGOAN TXANDA ESKATZEKO: 646 319 053 EDO ALOSARCL@NASUVINSA.ES

helaraztea eta zalantzak argitzea da. Askotan gauza hauek ez dira ulertzen errazak, eta dirulaguntzak eskatzea ere ez da erraza. Gure lana hori guztia ahal duguna erraztea da. Jendeak zein interes duen jakiteko dagoeneko zenbait herritan bilerak egin ditugu. Esku hartze Globaleko Proiektuak daude ere, jaso daitezkeen dirulaguntzak handitzen dituztenak. Halako proiektuak egiteko 11 eskaera jaso ditugu eta zazpi garatzen ari gara.

Dirulaguntzak zenbatekoak dira?

5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan etxebizitzako 20.000 eurora arteko dirulaguntza jaso daiteke. Gobernuaren laguntzak %40 eta 50 arteko dirulaguntza eman dezake (20 urte baino gehiago dituzten etxebizitzetarako). Eta Europak, berriz, %50. Aurrekontuaren %70 edo %80ko dirulaguntza jaso dezakezu, baina beti dago gehienezko diru kopuru bat etxebizitza bakoitzeko. Europako dirulaguntza lerro asko daude gaur egun (etxebizitzek 20 edo 25 urte izatea eskatzen dute). Batzuk Nafarroako Gobernuarekin bateragarriak dira, beste batzuk ez. Esandakoa, hainbat dirulaguntza deialdi daude, orain arte egon ez direnak.

Udalak ere sartzen dira?

Ez, etxebizitza pribatuak bakarrik. Halako lanak egiten 40 milioi euro mugitzea da gure helburua. Baina udalek gaiarekiko interesa dute eta laguntza handia ematen digute.

Bost udalek hitzarmena sinatu dute?

Arakil, Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza eta Etxarri Aranazko udalekin sinatutako hitzarmenak Esku hartze Globaleko Proiektu batzuk sustatzeko aukera ematen du. Auzoko ate guztien ikerketa egiten da eta halako proiektua izanda Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak hobetzen dira. Sakanako gainontzeko hamar udalekin harremanetan gaude eta aholkua eta estaldura teknikoak ematen diegu. Sakandarrak laguntzeko gaude.

Eta hori zenbat denboran?

Proiektua 2024ko apirilaren 24ra arte egonen da, eta beste urte batez luzatu daiteke. Laguntzak eskatzeko epe batzuk daude eta beste batzuk lanak despeditzeko, laguntzaren arabera da hori. Orain interesgarria da jakitea laguntzak eskatzeko epeak daukela. Esaterako, 25 urte baino gehiago dituzten etxe bakarrendako PREE 5000 bateragarria da.

SAKANAKO

erzaldoiak *ezagutzen*



- ➔ ALTSASU
- ➔ LAKUNTZA
- ➔ UHARTE
ARAKIL





↻ Kinto neska

Urtea: 2019
Neurriak: 3,4 m 36 kg
 Altsasuko festa garrantzitsuenetarikoa da. 18 urte (pandemiaren ondoren 19 urte) betetzen dituzten gazteek ospatzen dute. Santa Ageda egunean diru eske ateratzen dira, eta bost egunez zortzikoa dantzatzten dute plazan. Lehen neskek bakarrik opilak egiten eta saltzen zituzten, orain guztiek egiten dute.

↻ Kinto mutila

Urtea: 2019
Neurriak: 3,56 m eta 42 kg
 Altsasuko festa garrantzitsuenetarikoa da. 18 urte (pandemiaren ondoren 19 urte) betetzen dituzten gazteek ospatzen dute. Santa Ageda egunean diru eske ateratzen dira eskuetan daraman zilarrezko bandjarekin eta bost egunez zortzikoa dantzatzten dute plazan.



↻ Momotxorro

Urtea: 1993

Neurriak: 3,56 m eta 42 kg
 Altsasuko herri inauterietako pertsonaia nagusia da. Izaki mitologiko bat da, erdi animalia erdi gizakia. Inauterietan basoetatik jaisten omen zen eta etxeetan sartzen zen. Oso basatiak dira. 2022ko festen aurretik,



↻ Sorgina

Urtea: 1993

Neurriak: 3,4 m 36 kg
 Euskal Herriko historian eta mitologian pertsonaia oso ezaguna. Eda-beak egiten zituzten, emaginak ziren, erizainak... Horregatik inkisizioak jazarri zituen beraien irudiaren gainean kondaira beltza jarriz. 2022ko festen aurretik, irailan, irudi berria aurkeztuko dute.





↻ Dantzaria

Urtea: 2004

Neurriak: 3,64 m eta 56 kg

Dantzariak Lakuntzako Elai Alai dantzari taldeari egiten dio aitortza. Garai batean Elai Alai taldeak erabiltzen zuen jantzia jaso zuten. Miren Ustarrozek egin zuen. Lakuntzako erraldoi eta buruhandien konpartsa-ri Iruñeko konpartsa batek irakatsi zion erraldoiak dantzatzen.

↻ Felipe "Rubio", nekazaria

Urtea: 2004

Neurriak: 3,74 m eta 58 kg

Bi erraldoi gutxi zirela, eta beste bi egitea erabaki zen. Batek Felipe Flores "Rubio" lakuntzarraren itxura izatea erabaki zen, bere onespena jasota. Felipe Rubio nekazaria zen, igandero Aralarra oinez igotzen zena, jakintza handikoa. Liburu batean berari Aralarren ateratako argazki bat jaso zuten, euskal gizonaren erakusle omen zelako. Erraldoia egiterakoan Kalek argazki hori erabili zuen eredu.



↻ Errementaria

Urtea: 2003

Neurriak: 3,67 m eta 60 kg

Bost buruhandi berriak egiteko lanetan herriko talde gehienak inplikatu ziren. Gaita jotzaile lakuntzarrak zeudenez, bi erraldoi egitea ere erabaki zen. Josu Iragiren ikuskaritzapean eta Jesus Andres Alegria "Kale"-ren diseinuari jarraiki egin zituzten eta lehen pertsonaia, errementaria izatea erabaki zen, Lakuntzako galdategiei aitortza moduan. Jose Ramon Garinek eta Kalek egin zuten.



↻ Etxekoandrea

Urtea: 2003

Neurriak: 3,63 m eta 53 kg

Etxekoandreei aitortza egiten die. Piperropila du eskutan, San Saastinetan dastatzen den opila. Miren Ustarrozek egin zuen. Gainontzeko erraldoi eta buruhandien-Sorgina, Akerra, Zatamarroa, Pertza eta Biltokijantziak bezala, arropak Maria Jose jostunak diseinatu eta lentzeriako ikastaroan parte hartzen zuten emakume lakuntzarrek josi zituzten.



☞ Felipe Gorriti Osanbela

Urtea: 2000

Neurriak: 3 m eta 30 kg

Uharte Arakil 1839ko agorrrilaren 23an jaio zen eta Tolosan hil zen 1896ko martxoaren 12an. Organo jolea eta musikagilea izan zen. Erlijio musika landu zuen bereziki eta ospe handia lortu zuen.



☞ Mikaela

Urtea: 2000

Neurriak: 3 m eta 30 kg

Garai bateko errege bikoteren errepika da gaurko konpartsan dagoena. Herriaren iparraldean dagoen bate-ratu aurretik San Migeli erreferentzia egiten dio Mikaela izenak.



☞ Martija Jauregikoa

Urtea: 2000

Neurriak: 3 m eta 30 kg

Uharte Arakilen bizi izan zen 1580 urte inguruan. Protomedikua eta ginekologoa. Aitonarengandik ikasi eta zenbait gaixotasun sendatzeko baimena izan zuen. Bere erremedioak landareekin egiten zituen.



☞ Donato

Urtea: 2000

Neurriak: 3 m eta 30 kg

XX. mendeko 60ko hamarkadan zegoen errege-erreginen errepikak argazkietan oinarrituta egin zituzten. Gizonezkoari herriaren hegoaldeko mendi gaineko ermitaren izena eman zioten.

KOLABORAZIOA

Sare, Saroi, Sarobe/Sarabe toponimo eta toponimo osagaiak

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Hasteko, argitu beharko genuke euskal toponimian erabili diren hiru izen hauek gauza bera adierazten ote duten funtsean.

Lehena, *sare*, hiztegiak ematen dion esanahitik kanpo oso erabilia da Sakanako toponimian, esate baterako. Urbasa mendigainean eta Etxarri Aranazko eta Ergoienako eremuetan ezagunak ditugu *Arbizuko sareak*, *Erbisare*, *Biondasare*, *Ansareta*, *Itxere* (idi + *sare* > *itsare* > *itxere*)... Horietan guztietan, aipatu izenak duen esanahia ganadua biltzeko eta gaua pasatzeko tokiarena da. Gaztelaniako 'redil' adieraziko luke, beraz.

Gainerako izenak, izen konposatuak ditugu eta ia Nafarroa osoan eta Gipuzkoan erabiltzen dira. OEHN era ezberdinetan agertzen zaizkigu: *saroi*, *saroe*, *saro*, *sario*, *sare*, *sari*, *sagoi*, *saboi*, *saure*, *sauri*, *ao*, *zaro*, *xauri*, *isario*. Etimologia ere ematen digu horrela: "de sare 'red' + o(h)e 'cama'".

Zalduak (2015) ere ez du inolako zalantzarik atal honen izenburuko bigarren izenaren

osagaiari dagokienez: "Elkartua (*mugatzailea [sare] + mugakizuna [ohe]*), bi izenez osatua, den aldetik zehaztasun handiko terminoa dugu *saroi*".

Eta hau guztia azpimarratuz, aurrerago, ondorengo dio: "*Sare eta ohe euskalki eta garai guztietan azaltzen dira (cf: Ol[h]a) eta, alde horretatik ez dago arazorik euskalkiak sortu aurrekoak izateko...*".

Baina, zer gertatzen da *sare*, beste osagirik gabe, eta beste aldetik *ohe* beharrean *ohatze/goatze/guatze* erabiltzen duten hizkeretako eremuetan?

Sarobe/sarabe, OEHN ere modu ezberdinetan ageri zaigu: *sarobe*, *sarobi*, *sarabe*. Eta esanahiari dagokionez, berriz, bat baino gehiago ematen du: "...*sel, es un monte de árboles en círculo perfecto, con su mojón en el centro*"; "*Sarabe, redil, lugar en que se recoge por la noche el ganado lanar*"; "*1.º corral con su choza para el ganado; [...] 5.º sel, terreno particular rodeado de monte comunal*"; "*el contorno de la choza del pastor*".

Mitxelenak ere ondorengo moduan jaso zituen *Apellidos Vascos* liburuan: "539.- *sarobe*,

saroi <*majada*> <*sel*> <*granja*>: *Sarobe* (*Aguirresarobe, Amitsarobe*), *Saroe, Saroihandy. Parece un derivado de sare* <*red*>, cf. cast. *redil y majada (de macula <mallá>). En Roncesvalles, 1284, Larrandorenen bi saroe, Arun Urriztoyen bi saroe* <*dos seles en L., en A.U.*>. *La variante sario está muy extendida en la Navarra alta*".

Zalduak (2015) esaten digu ez dela *saroi* Euskal Herriko sartaldean agertzen: "*Saroi-ren sartaldeko hutsunearen aurrean bi hipotesi jar daitezke mahai gainean*".

Eta aurreraxeago: "*Mendebaldean saroi zergatik ez den kausitzen azaltzeko beste bideabiak garaiakideak direla iriztea da, ...*".

J. Ortega Valcárcel (1987, 85) Cantabriakoak horrela definitu zituen: "...*espacios dentro de las brañas, acomodados al descanso y refugio del ganado. Espacios privilegiados por sus condiciones: resguardados, con agua disponible, con arbolado para la protección, refugio y atemperamiento de los animales y con arbolado de apoyo para la alimentación de emergencia en los periodos de rigor invernal*".

Eta Gipuzkoakoendako ere baliagarri dela aurreko definizioa esaten du Díaz de Duranak (1995) eta euskaraz ondorengo izenak dituela garaiko Gipuzkoako dokumentazioan dio: *sarobe*, *saroe*, *saroi* edo *korta*.

Hau guztia ikusirik, badirudi esan daitezkeela hiru izenek gauza bera ez bada ere, antzekoa bai bederen adierazten dutela, hau da, ganaduak gaua pasatzeko tokiari egiten diotela erreferentzia.

Hala ere, zehaztasunetan sartuz gero, izen horien osagaiak kontuan harturik, aipatu hiru izenei ezberdintasunen bat badariela esan dezakegu. Lehen-lehenik, *sare* izenak osagai bakarra du eta beste biek bina osagai. Orain, azken hauen kasuan zein izan daitezkeen bigarren osagaia haztatu behar.

Lehentxeago aipatu dudán Díaz de Duranak esaten du 1483ko oñatiar baten arabera saroiak edo sarobeak asko

zirela Oñatiko konderrian eta Gipuzkoan, eta bi motatakoak gainera: "...*seles de ynbierno e seles de verano, ...*" Eta autore berak diosku 1514ko Oñartzungo testu batean soilik lau zirela handienak, negukoak, eskualde osoan, eta *vehierdisarobeac* (*que quiere decir seles de vacas paridas*) esaten zitzaieela euskaraz. Handiagoak ziren negukoak udakoak baino. Udakoan tamaina bikoitza zeukaten negukoek Segurako hiriaren eta Oñatiko jaunaren arteko auzia jasotzen duen 1433ko dokumentuaren arabera: "...*quatorze seles de berano de cada seys gorabiles ... e los tres seles para en cumplimiento de los dies e siete son de ynbierno de cada dose gorabiles...*" Eta erabat logikoa ematen du horrela izate, negukoak haranean izanik aukera gehiago (eremu zelaitzuagoa, ura, babesa, iraunkortasuna...) izanzen zuelako zabalera gehiago hartzen, eta baita bertan denbora gehiago egoteko urtearen bueltan.

OEHN, eta Zalduak ere bai, argi izan dute saroi izenaren etimologia eta, beraz, osagaiak horrela azaldu dituzte: *sare* + *o(h)e*. Mitxelenak *Apellidos Vascos* laneko aipamenean ematen dizkigun azken bi toponimoetan oinarriturik, seguru asko. Bilgunea eta lo egiteko eremua. Eta kasu honetan ez litzateke, ez esanahiaren aldetik, ez osagaienetik ezberdintasunik izanzen *sarobe* izenarekin, ezaguna baita zenbait eremutan *ohe* > *obe* bilakabidea gertatzen dela. Baina, hizkuntza-eremu berberak dira *obe* eta *sarobe/sarobe* izenak erabiltzen dituztenak? Ez dirudi hala denik. Hala ere, beste zenbait toponimoren kasuan gertatzen da honen osagaia baten eta erabilera arruntako hitzaren halako kideasun eza: *atze* (hizkera arrunta), *Ezkibel* (haitz + gibel); *lazka* (nazka, hizkera arrunta), *iguindduik* (iguin eginik, nazkatuturik, esamolde berezia).

Niri, hala ere, ikusirik sare edo korta mota ezberdinak (kokapena eta tamaina, bereziki) direla Euskal Herrian, izenak ere ezberdintasun horien

araberakoak izan daitezkeela iruditzen zait. Eta horrela, udako sareak goietan kokatuak izanen lirateke; eta, negukoak, behean: *sare* + *goi* > *saroi*; *sare* + *be(he)* > *sarabe/sarobe*. Behe osagaiarekin bereziki, asko dira euskal toponimoak: *Olabe*, *Aldabe*, *Etxabe*, *Larrabe*...

Udakoak, *saroiak*, goietan beraz, asko dira Euskal Herri osoan (*Saroi txo*, *Perusaroi* eta *Sagarminsaroi* Olatzagutiako toponimian, *Saroi* Ziordikoan) eta negukoak, behealdean orduan, ere bai. Azken hauen lekuko Urdiaingo *Sarabe* (beste zazpi mikrotoponimo, honengandik eratorriak inguruan dituela Urdiainen bertan eta *Sarabe*ko *hesiondo* Iturmendin), Dorraoko *Leziza* eremuaren barnean, ibaitik gertu, *Veiernarisarobe*a ere ageri zaigu Etxarri Aranazko udal artxiboko 1699ko mugarritzeetan) eta Oñartzungo *Olaizko ogisarobe*a.

Bestalde, *goi* izenondo moduan, hau da, bigarren osagai bezala, agertzen direneko adibide ugari ematen dizkigu OEHN, hauetan berezirik ageri bada ere kasu guztietan: "...*Mendi goi batzuek, Zeru goi urdiñaren...*, *Ots goi meagodun [ezkilak] dirala, Donoki goian...*".

Eta Etxarri Aranatzen ganboiko (ganbara + goiko, aipatu osagaia eskuin aldean) izena erabiltzen da "ganbara" adierazteko, hau da, etxeko teilatu azpian dagoen solairua. Urdiainen eta Bakaikun, aldiz, *goikoganbara* erabiltzen dute.

Eta amaitzeko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Ingalaterrako hegoaldeko Salisburu hiriaren iparraldean, bi kilometro eskasera dagoen *Old Sarum* aztarnategi arkeologikoa, non duela 5000 urteko aztarnak baitira. *Sarum* hori, gure "sare" izenaren antza handikoa da. Aztarnategi zirkularra dugu hauxe (*henge* Ingalaterran), gure sareen (*saroi*, *sarobe*, *sarabe*) modukoa eta egungo Salisburu (*Sarisberie* normandoen garaian Rutherford-en arabera -2015, 7-) hiriari New Sarum ere esaten omen zaio eta hiritarrei *sarumite*. Kasualitatea ote izenaren antzekotasuna?

DUELA 25 URTE...



Satrustegiren ipuinen liburua

Ibarrean jasota zituen hainbat ipuin bildu eta Mattin Mottela, Sakanako ipuinak liburuan argitaratu eman zituen Jose Mari Satrustegi Zubeldiak. Ipuin bildumarekin herriaren psikologia islatu nahi izan zuen. Sakanaren nortasuna kultur nahasketaren jabe dela adierazi zuen Satrustegik aurkezpen prentsurrekoan. Alsa autobus enpresak argitaratu eta doan banatu zuen liburua La Burundesaren leihatilaren bidez.



Arbizu Kirol Taldea. Goian, ezkerretik hasita hirugarren, Jokin Urzelai Etxebarria. UTZITAKOIA

"Arbizuko garai bateko torneokoak berreskuratu nahi genituen"

JOKIN URZELAI ETXEBARRIA ARBIZU KIROL TALDEA

ARETO FUTBOLA Balda Futsal 24 Orduak Torneoaren balorazio ona egin du Arbizu Kirol Taldeko jokariak. Asteburuan Estatu mailako txapelketa jokatuko dute Xixonen

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Asteburuan jokatu zen Arbizu Kirol Taldeak antolatutako Arbizuko Balda Futsal 24 Orduak areto futbol txapelketa. Andra Mari ikastolak ikasturte bukarako festa antolatuzuela gehituta, festa ederra izan zen larunbatean Arbizun.

Arbizu Kirol Taldeak baditu urte batzuk.

Orain dela 11 urte inguru sortu zen, eta ordutik aktibo dago, ez da inoiz eten. Taldea sortu zutenetako batzuek segitzen dute,

baina asko oinordekoak gara, gazteagoak. Gazteen eta helduen arteko fusio bat egin dugu. Gazteoi oso aberasgarria egin zaigu belaunaldi ezberdinen arteko erlazio hori sustatzea, erlazio oso polita baita.

"SEKULAKO FINALA IZAN ZEN; AZKENEAN INGENIERIAS IRADI TALDE ALTSASUARRA GAILENDU ZEN"

Non lehiatzen zarete?

Iruñeko liga amateur batean, FS5 liga deituta. Lehen mailan jokatzen dugu guk, asteburuko txapelketan. Izan ere asteburuko eta astez jokatzen den txapelketa daude, eta txapelketa bakoitzean lauzpabost maila daude. Oker ez banago, guztira 400 talde lehiatzen gara Iruñean. Gure mailan, lehen mailan, 15 talde gara. Horretaz gain herrietako torneo puntualetan ere parte hartzen saiatzen gara, ahal dugunean.

Zergatik ez duzue federazioko txapelketan parte hartzen?

Federazioaren txapelketak maila handiagoa duela uste dut. Konpromiso gehiago eskatzen du. Guk nahiago dugu FS5 Ligan aritzea ahalbideratzen duelako areto futboleko aritzea, baina konpromiso handirik gabe. Bestalde, izena ematea merkeagoa da, federaziokoaren erdia.

Zer nolako denboraldia egin duzue?

Erdipurdikoa esango nuke. Urtero bezala oso gogotsu hasi ginen, Gabonak arte beti hala ibiltzen gara, jokalaria askorekin, baina ilbeltzetik aurrera beti berdina gertatzen zaigu, partidetararen jende gutxiago joaten hasten gara, eta denboraldia pixka bat makal bukatzen dugu, jokalaria justuekin ibiltzen garelako eta horrek erretzen duelako. Baina Lehen mailan mantentzea lortu dugu, disfrutatuz dugu eta alde horretatik oso ongi. Askotan galdetu izan diogu gure buruari konpromiso gehiago izanez gero zer egiteko gai izango ginatekeen, baina halakorik etorri ez denez...

Lehendabiziko aldian da 24 orduko txapelketa bat antolatzen duzuela?

Ni taldean nagoenetik bai, baina taldearen hasiera haietan 12 orduko txapelketa pare bat antolatu zituztela uste dut. Arbizun halako torneoren bat egiteko gogoia izan dugu beti, 12 ordu horiek berriz pizteko grina, sekulako giroa egoten zelako eta halakoetan asko disfrutatzen dugulako. Aurten data jarri genuen eta txapelketa aurrera eramatea erabaki genuen. Fran Baldaren kuadrillakoez proposatu ziguten txapelketari haren izena jartzea eta primeran iruditu zitzaigun.

Arbizuko Balda Futsal 24 Orduak harrera bikaina izan dute.

Bai, hamasei taldek jokatu zuten, talde sakandarrek, Arabako Lautadakoez eta Iruñea eta Burlatakoek. Gure taldeko jokalaria batzuek parte hartu genuen, baina beste talde batean. Txapelketa giro ederrean jokatu zen, inolako arazorik gabe. Finala Ingenierias Iradi talde altsasuarra eta Iruñeko Eurovegastaldeen jokatu zuten. Final ederra

"XIXONEN FS5 LIGAKO TXAPELDUNEN ARTEKO TORNEOAN LEHIATZERA GONBIDATU GAITUZTE"

izan zen, borrokatua, bi taldeak onak direlako. Iradi taldekoek urte asko daramate eta beti daude borrokan. Eurovegastaldeen Iruñekoak da, talde sendoa, baina Ingenierias Iradik irabazi zuen. Hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partida ez genuen antolatuz; beraz, hirugarren postuan bi talde sailkatu ziren, Arbizuko taldea eta Aguraingoa. **Maila handiko partidak izan ziren?** Beti bezala, denetarik egon zen. Talde hobeak eta maila gutxiagoak daude, baina partidetan mundu guztia gogotsu zegoen, partidak intentsitate handiz jokatzen, eta hori da garrantzitsua eta politena. Finala sekulako partida izan zen. Bukarera arte tentsio eta maila handiko finalaz gozatzeko aukera izan zen. Partida bereziak egon dira, bai. Sariei dagokienez, talde irabazleak 300 euro eta Arbizuko produktu lote ederra jaso zuten: txistorra, gazta, txorizoa... Ildo honetan, oso eskertuta gaudu herriko komertzio eta eragileekin, eurek emandako produktuekin lote bikainak prestatu genituelako.

Festa ederra sortu zenuten Arbizun.

Aspaldiko torneotako egunak etortzen zitzaizkigun burura, frontoia gainezka egoten zenekoak, eta une horiek berriro bizitzea oso berezia izan zen, kiroldegia beteta zegoelako. Tabernak aparteko giroa eman zion, eta asteburu polita izan zen, Andra Mari ikastolaren festarekin borobildu zena.

Zapore oso ona utzi du txapelketak. Datorren urtean berriro?

(Kar, kar...) Txapelketa jokatu aurretik jada esaten genuen datorren urtean berriro egingo genuela, beraz... Lan handia da, baina urtero Baldaren oroitzapena mantentzeko eta herriari giroa emateko ahaleginduko gara; asmoa badugu.

Arbizu Kirol Taldeak oporrak hartuko ditu orain, ezta?

Asteburu honetan Xixonera goaz. FS5 Ligak estatuko probintziako txapeldunen arteko txapelketa antolatu du, eta gonbidatu gaituzte, duela zenbait urte aurrean egon ginelako. Gure multzoan Jaen, Bartzelona eta Lleida talde bana dago. Esperientzia berria izango da, eta gure maila ematea, ahal den guztia borrokatzea eta disfrutatzea espero dugu. FS5 Ligak Facebooken lotura bat jarri du partidak jarraitu ahal izateko.

Palista onenak Altsasun, txapelaren bila

PALETA GOMA Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Goma Torneoko finalak igandean erabakiko dira, 12:00etan, Burunda pilotalekuan. Sarrera doan da. Finalisten artean, hiru sakandar: Naroa Otxoa eta Olaia Eizagirre 22 urtez azpikoan, eta Irati Igoa elitean

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasun jokatuko dira II. Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Goma Torneoko final handiak, igandean, 12:00etan, Burunda frontoian. Kadeteetan Aroa Arrosagaraik eta Amaia del Ríok Uxue Urgoiti eta Maialen Bengoetxea izango dituzte aurkari; 22 urtez azpiko finalean Naroa Otxoa eta Olaia Eizagirre etxarrirek Juncal Quevedoren eta Olaia Sarasibarren kontra jokatu dute; eta elite mailako finalean Irati Igoa etxarriarrak eta finalerdian lesionatu zen Uxue Murillo ordezkatu duen Paula Gorostiagak Amaia Espinal eta Laura Saez Arzamendi izango dituzte aurkari. Sarrera doan izango da, eta joan zen urteko finalean Etxarri Aranatzek bizi zen festa eta giro berbera bizitzea espero dute antolatzaileek. Eliteko finala Navarra Telebisionek eskainiko du zuzenean.

Finalen aurkezpenean Miguel Pozueta Nafarroako Kirol Institutuko kudeatzaileak, Javier Conde Nafarroako Pilota Federazioko presidentek, Javier Olo Altsasuko alkateak eta probako babesle nagusi Laboral Kutxako Izaskun Erdozia izan ziren. Olo azaldu zuen finalak hartzea proposatu zieten "ez zutela zailtzarrik izan, emakumezkoen



Asteazkenean egin zen finalen aurkezpena, Altsasuko Foru plazan.

kirola ikustarazteaz gain, finalak Altsasu herria ere ikusgai jartzen duelako". Herritarrak frontoira hurbiltzea animatu zituen, "ikus-kizun bikaina" izango delako.

Condek palista nafarren maila goraipatu zuen. "Gure artean Espainiako txapeldunak ditugu". Halaber, emakumezkoen pilotak gorakada nabarmena duela azaldu zuen. "Emakumezkoen 250 lizentzia gehiago izan ditugu. Guztira 2.000 lizentzia baino gehiago ditugula kontuan hartuta, kopuru ederra da. Kalitatean ere salto handia egin dute. Ema-

kumezkoen pilotak etorkizuna du" azaldu zuen. Pozuetak argi utzi zuenez, "emakumezkoen kirola eta gure lurraldeko kirola, pilota, babestu eta sustatzen dugu, eta hala jarraituko dugu". "Igandea egun handia izango da Altsasun, palisten maila ikusgarria delako".

Guztiek torneoa antolatu ahal izateko Laboral Kutxa babeslearen ahalegina eskertu zuten. "Guretake poz handia da hemen egotea eta emakumezkoen kirola sustatzea" azaldu zuen Erdoziak, eta finalistei zorte ona opa zien.



Olaia Eizagirre eta Irati Igoa, finalen aurkezpenean.

Final gogorak espero dituzte

Aurkezpenean egon ziren finalisten artean Olaia Eizagirre eta Irati Igoa etxarriarrak zeuden. Naroa Otxoak ezin izan zuen hurbildu. Torneoko 22 urtez azpiko mailan Olaia Eizagirrek Naroa Otxoa etxarriarrarekin osatu du bikotea, "biak etxarriarrak gara, baina lehenengoz aritu gara torneo batean elkarrekin. Martxa hartuta, elkarrekin gustura gaude" azaldu zuen Eizagirrek. Quevedoren eta Sarasibarren kontra "partida gogorra" espero du. "Ligaxkan euren kontra jokatu genuen, 15 tantotara, eta partida lehiatua izan zen. Galdu genuen, baina finala beste partida bat izango da, 30 tantotara baita. Ongi jokatzea espero dugu" adierazi zuen.

Ildo beretik mintzatu zen Irati Igoa elite mailako finalista. Bere taldekide Uxue Murillo finalerdian lesionatu zen, eta modu berezian sailkatu zen finalerako, azken tantotan berak bakarrik jokatuz. "27 eta 23 irabazten geundela lesionatu zen Uxue, eta bakarrik jarraitzea erabaki nuen, ahal nuena egitea. Eustea, eta ahal nuenean tantoak bukatzea. Azkenean 30 eta 25 irabazita sailkatu ginen" dio, irribarrez. Murillok finala ez jokatzeagatik "pena" dute guztiek, baina min hartuta dagoenez, Paula Gorostiagak ordezkatu du Murillo. Finalerako aurkariak, Amaia Espinal eta Laura Saez Arzamendi, aspaldiko ezagunak dira. "Ligaxkan irabazi genien, baina finalean partida berria dugu aurretik. Partida luzea izango da, beroa, eta gogorra. Ea final polita den" opa du etxarriarrak.

Hiru etxarri Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Goma Torneoko finaleran, handia da hori. Jakina, lagunena eta senitartekoen babesa espero dute. "Abisatuta daude, eta finalak Altsasun direnez, ez dago aitzakiarik" diote irribarrez.

Neskak pilotan eta palan izena ematera animatu dituzte Altsasun eta Etxarri Aranatzek emakumeen pala eta pilota eskolak daude. Altsasuko kirol teknikari Sara Salazarrek bertan izena ematera animatu zituen neska sakandarrak.

Irurtzungo gazteen pausoa

PILOTA XXX. Irurtzun Txapelketako finala aurreikusitako bezain gogorra izan zen. Txapela Irurtzun klubeko gazteentzako jantzi zuten, Irurtzungo beteranoei tanto bakarraren aldearekin gailenduta. Lau eta erdian De la Fuente Ongayri 22 eta 6 irabazi zion, eta nahiz eta binakoan Retegi Bi eta Bergerak Olaetxeari eta Lazkozi 17 eta 22 irabazi, aldea ez zen nahikoa izan.





Korrikalariak zitzu bizian atera ziren Aralarrerantz.

Zabalegiren eta Urrutiaren Lakuntza-Aralar

MENDI LASTERKETAK Mikel Zabalegi ordiziarrak ordu pasatxoan osatu zuen Aralarko 13,1 kilometroko buelta, Jabi Gasanz minutu bat aterata. Ainara Urrutia aretxabaldar beteteranoa erraz gailendu zen, eta Marina Zabala hirugarren sailkatu zen

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA Lakuntza-Aralar mendi lasterketa hasteko ordu erdi bat lehenago ekaitza hasi, eta azken tintinak erortzen zirela ekin zioten probari izena emana zeuden 150 korrikalariak. Ordu laurdenera atera ziren ibilbide bera oinez egin zuten martxistak. Aurten Zabalarte elkarteak ibil-

bide laburreko ibilaldia prestatu zuen bakarrik, "2021. urtea bukatu baino lehen federazioan zer nolako lasterketa antolatuko genuen esan beharra zegoelako, eta pandemia puri-purian zegoenez, soilik proba laburra egitea erabaki genuen, horrenbeste jende ez biltzeko" azaldu du Zabalarteko Iñaki Arkauzek.

Lakuntzatik abiatuta, Guardetxera (1.035 m) eta Larluze gainera (1.103 m) igo eta Etxaaltxetatik (909 m) eta Arangundik Lakuntzara jaistearen erroka (13,3 km). "Lurra gogorra zegoen, baina harriak bustita, irristakor. Aurrea hartu dut eta lehena igo naiz. Banekien bigarrena minutu ingurura nuela, eta, horrega-

tik jaitsieran ez dut gehiegi arriskatu behar izan. Lehen aldiz aritu naiz hemen, Beñat Kata-rainek esan zidan polita zela, niretako aproposa, eta hala izan da. Ibilbidea asko gustatu zait, oso polita da, indartsu sentitu naiz eta oso gustura" azaldu zuen 28 urteko Mikel Zabalegi irabazle ordiziarrak, helmugara bakarrik heldu eta gero (1:01:17). Jabi Gasanz altsasuarrari minutu bat ateratzen (1:02:39) eta hirugarren Yelko Pardiñas Garcia (1:04:17) iruindarra izan zen.

Emakumezkoetan Aretxabale-tako Ainara Urrutia alde handiz gailendu zen (1:09:18). "Lehen aldiz aritu naiz hemen, ingurune hau ez nuen ezagutzen eta proba ederra iruditu zait. Jaitsieran adi ibili beharra zegoen, baina jendeak animatzen zuen eta giro oso polita egon da" aitortu zuen bi aste barru Trikutrailen parte hartuko duen beteteranoak. Lau minutu atera zizkion Olatz Zabala irundarrari (1:02:39) eta hirugarren Marina Zabala Sukia lakuntzarra izan zen (1:17:22).

Sari gozoak

Podiumera igo zirenek Txindoki gozotegian egindako tarta gozoak jaso zituzten opari, Zabalarteren logo txokolateduna zutena. Lehendabiziko hiru sailkatuek gain, sariak izan ziren lehen bi sakan-darrendako—Gasanz eta Zabala—, lehen bi lakuntzarrendako—Asier Garziandia eta Zabala— eta lehen bi beteteranoendako—Ainara Urru-


Sakandarrak

Lakuntza-Aralar (13,3 km)

Gizonak	
1. Mikel Zabalegi	1:01:17
2. Jabi Gasanz	1:02:39
14. Jabi Borrega	1:09:08
19. Igor Artieda	1:10:52
20. Ander Galarza	1:11:04
22. Asier Palacios	1:11:11
23. Aimar Araña	1:11:14
26. J. Javier Beregaña	1:12:37
28. Asier Garziandia	1:13:05
31. Joseba Iza	1:13:41
41. Asier Estarriaga	1:15:56
45. Ion Igoa	1:17:32
54. Eneko Garasa	1:19:27
56. Jorge Vitoria	1:19:31
57. Bernardo Garziandia	1:19:33
60. Ander Rosado	1:19:41
78. Raul Moro	1:23:32
80. Oihan Artieda	1:24:17
126. Imanol Apaolaza	1:45:21

Emakumeak

15. Ainara Urrutia	1:09:18
43. Marina Zabala	1:17:22
50. Maite Beregaña	1:18:48
72. Eneritz Karasatorre	1:22:24
79. Maria Risco	1:24:08
86. Itziar Retegi	1:26:43
94. Sonia Alonso	1:28:50



tia eta David Martinez. Azkenak, Amaia Venturak, oparia jaso zuen baita ere. Sari ematea baino lehen ANFAS-en aldeko lasterketa solidarioa egin zuten txikiak.

Ergako Kronoigoerarik azkarrena: errekorrak, apurtuta

MENDI LASTERKETAK Asier Labairu eta Lorea Burgete Askako plaza eta Trinitatea lotzen azkarrenak izan ziren

Irurtzungo La Guan taldeak larunbatean antolatutako IV. Ergako Trinitatera Erlojupeko Igoera arrakastatsua izan zen. Probak lau edizio ditu baina jada Trinitate festetan klasikoa bilakatu da. Guztira 56 korrikalariak osatu zuten proba, Aska plazan hasi eta Ergako Trinitatean despeditu zena (3 km, 500 m desnibel +). Bidean bildu ziren zale askoren animoak eta txaloak jaso zituzten guztiak. Denbora guztiak jasota, Asier Labairu (21:51) eta Lorea Burgete (29:22) izan ziren txapeldunak.

Maila handia

Asier Labairuk 22 segundo atera zizkion Aitor Etxeberriari eta 44 segundo Eukeni Goikoetxeari. Ildo honetan aipatzekoa da korrikalarien maila, lehenengo lau sailkatuek—Asier Labairu, Aitor Etxeberria, Eukeni Goikoetxea eta Kañamares— 2015etik Mikel Rubiok zuen errekorra apurtu baitzuten. Emakumezkoetan Lorea Burgete nagusitasun osoz gailendu zitzaion Marta Irañetari, bi minutu pasa ateraz (31:49). Amaia Seminario izan zen hirugarren (32:06).



Giro ederra izan zen Ergako Trinitateko Kronoigoeran, animazioa eta guzti. UTZITAKOIA

Etorkizuna, bermatuta

Antolakuntzak Amets Etxarte nabarmendu nahi izan zuen, "lau urterekin Ergako Trinitateko igoera egin zuelako, bere aitarekin. 56:56 minutukoa izan zen bere denbora" azaldu du La Gua-

neko Roberto Martilek, irribarrez. Lasterketa herrikoi eta berezi honek, beraz, etorkizuna du. Probak denbora gutxian lortu duen arrakasta ikusita, datorren urteko bosgarren ediziorako prest daude La Guaneko kideak.

Sakandarrak

Trinitateko Kronoigoera (3 km)

Gizonak	
1. Asier Labairu	21:51
2. Aitor Etxeberria	22:13
3. Eukeni Goikoetxea	22:35
4. Kañamares	22:43
5. Iñigo Lasarte	23:28
6. Thibaut Bertrand	23:56
7. Alvaro Munarriz	25:36
8. Mikel Rubio	25:50
9. Borja Gomez	26:02
10. Alvaro Rubio	26:15
11. Dani Devora	26:27
12. Alatz	26:27

Emakumeak

31. Lorea Burgete	29:22
41. Marta Irañeta	31:49
42. Amaia Seminario	32:06
49. Maialen G.	35:29
52. Maidar Saralegi	37:46
54. Lorea Peñalver	39:52

*Lehen hamabi sailkatuak.

Lehen sakandarrak



Jabi Gasanz Barragan
2019an Lakuntza-Aralar ibilaldi laburrean hirugarren izan zen eta aurten bigarren, "baina asko hobetu dut. Uste dut 7-8 minututan jaitsi dudala denbora" dio. Igoeran indarrak gorde zituen, "banekielako jaitsieran asko irabazi nezakeela, baina agian indar gehiegi gorde ditut. Edonola ere, eroso ibili naiz, kilometro guztiak gozaten, eta oso gustura, ibilbidea zoragarria dagoelako. Aralar oso polita da". Igandean Camille Extremen eta bi aste barru Triku Trailean ariko da.



Marina Zabala Sukia
Lehenengoz aritu zen herriko proban, "baina entrenatzen bertan ibiltzen naiz eta oso ongi ezagutzen dut. Harriak bustita zeuden, baina temperatura freskoa zen, primerakoa, eta aurreikusitako denbora egin dut, gustura. Oso pozik nago" aitortu du. Berriki Zegama-Aizkorri Bertikalean parte hartu zuen "beste esperientzia bat". Goierri Garaia taldearekin hasi da eta pixkanaka hobetzea da erronka, "hau luzea delako". Hamabost egun barru Triku Trailean ariko da.

Altsasu BTT, 25 edizio eta segi aurrera

MENDI TXIRRINDULARITZA 700 bikerrek hartu zuten parte Barranka Txirrindulari Taldeak antolatutako 25. Altsasu BTT Zeharkaldian, antolakuntzak zehaztutako gehiengoak, eta Sakanako txoko ederrez gozatu zuten. Gehienek ibilbide luzea aukeratu zuten

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
25. Altsasu BTT Zeharkaldia abiatu zenean euria ari zuen, baina berehala atertu eta egunak probaren urteurrenarekin bat egin zuen. Barranka Txirrindularitza Taldeak ibilbide ederra antolatu zuen, "orain arte ibili gabeko tokietatik sartu dena, toki ikusgarrietatik. Guretako egun hau gozamen hutsa da, festa polita, eta aurten, agian, bereziagoa, 25. edizioa delako" aitortu zuen Altsasu BTT Ibilbideko arduradun Felipe Troyanok. Barrankako presidente Julian Claver ere pozik zegoen, "guztia primeran" atera zelako.

Barrankak 700 pertsonarendako muga jarri zuen eta tokia bete zen, proba ez lehiakorrik duen arrakastaren isla. Gehienek ibilbide luzea egin zuten (46 km, 939 metroko desnibel +). Santa Luziasakanetik Sorozarretara jotzen zuen, Ibarrea eta Ameztatik Olazti eta Ziordiarena den Batureko iturrira heltzeko. Aizki-



Altsasuko plazak itxura ederra izan zuen igandean.

beldik Ziordira jaitsi eta Urdiainera heldu ziren bikerrak, eta hornidura gunean atsedean hartu ondoren Iturmendiraino. Han banatzen zen bidea. Laburrekoek (36 km) zuzenean Urdiaingo igerilekuetara jo zuten eta handik

helmugara, eta luzekoek eta ertainekoek (42 km) Iturmendiko basorantz jo zuten. Ertainekoak Urdiaingo igerilekuetara iritsi ziren eta luzekoak Intsusburu ingurura igo eta Bernoako galzadatik jaitsi ziren, helmugara.

Iñigo Garciak eta Ines Morenok lortu zuten Aitzkozar Saria

ATLETISMOA Bakaiku eta Iturmendi arteko ibilbide gorabeheratsuan erraz gailendu ziren irabazleak

Larunbat arratsaldean jokatu zen Iturmendiko Aitzkozar eta Bakaikuko Bakarreko Etxea elkarrekin antolatzen duten Aitzkozar herri lasterketa. Aurten Bakaikuri zegokion probaren antolaketa, eta elkartetik abiatuta jokatu ziren lasterketak. Lehenik eta behin kategoriatxikoen lasterketak jokatu ziren: aurrebenjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak. Guztira 34 gaztetxok parte hartu zuten. Helduen proban 39 korrikalari aritu ziren, eta jubencil mailako lau korrikalari.

Lasterketak utzi zuena

Iñigo Garcia Gabari iruindarrak aurrea hartu eta Bakaiku eta Iturmendi arteko ibilbide gorabeheratsuan aurrera egin zuen, helmugara lasai iritsita (27:09), la minutu batera sartu zen goizean Irurtzungo Ergako Trinitateko Kronoigoeran hirugarren sailkatu zen Eukeni Goikoetxea altsasuarra (28:06), eta hirugarren Asier Estarriaga etxarriarra izan zen (28:46), hurrengo egunean jokatu zen Lakuntza-Aralar mendiko lasterketarako beroketa gisa erabili zuen proban.



Aitzkozar lasterketako sarituak, Bakarreko Etxea elkartearen parean.

Emakumezkoetan Ines Moreno Sanchez altsasuarra ez zuen areriorik izan eta bakarrik iritsi zen helmugara (32:54), Erkunden San Martin etxarriarrari bost minutu aterata (37:19). Esti Mateos iturmendiarrak osatu zuten

podiuma (42:19). Junior mailan Xabier Moreno gailendu zen, eta lehen sakandarra Ekhi Barandiaran izan zen, helmugan hirugarren. Aipatzekoa da Aitzkozarren parte hartzaile gehienak sakandarrak izan zirela.

Sakandarrak

Aitzkozar (8,1 km)

Gizonak

1. Iñigo Garcia	27:09
2. Eukeni Goikoetxea	28:06
3. Asier Estarriaga	28:46
5. Joseba Galarza	30:54
6. J. Carlos Gomez	31:04
8. Imanol Guerrero	32:32
9. Santi Galarza	32:49
13. Julen Goikoetxea	35:36
14. J.A. Salgado	36:06

Emakumeak

1. Ines Moreno	32:54
2. Erkuden San Martin	37:19
3. Esti Mateos	42:19
4. Idoia Rubio	43:40
5. Ihintza Nuñez	43:59
6. Txaro Ondarra	45:27
7. Arantxa Otamendi	49:12

*Lehen hamabost sailkatuak daude jasota.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 17

BAKAIKU Kafe konpandu.

17:30ean, plazan (eguraldi txarrarekin udaletxean).

ALTSASU Arte lanen erakusketa.

Iñigo Aritza ikastolako ikasleen arte proiektuaren erakusketa. 18:00etatik 20:00etara, Gure Etxean.

OLAZTI Festetako kartela aukeratzeko bozketa.

18:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

ALTSASU Udal azpiegitura sozializatu! Manifestazioa.

AGAK eta GKSsk deituta. Ondoren, Nerepe bakarlaria gaztetxean. 19:00etan, Foru plazatik.

OLATZAGUTIA La Topadora taldearen kontzertua.

20:00etan, Barandi tabernako terrazan.

LARUNBATA 18

ETXARRI ARANATZ GKSren Gazte Eskola Politikoak.

Gazteon bizi eredu proletarioa borrokatu hitzaldia. 10:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Iñigo Aritza ikastolaren 50. urteurren festa. Iortia zabalgunean.

11:30 Haurrendako tailerrak. 12:30 Ekitaldi nagusia.

13:00 Kalejira Sakanako trikitilariekin.

14:30 Herri bazkaria, Burunda frontoian.

16:00 Haurrendako jolasak Zirimola taldearekin.

16:30 Trikidantz taldearen kontzertua.

ALTSASU Gorputzak dantza jaialdia.

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako gazte eta helduen taldeak. 18:00etan eta 20:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Doctor Faustus taldearen en eta Blanca Inésen kontzertuak.Doctor Faustus rock taldearen kontzertu akustikoa eta Blanca Inés bakarlararen *Silvio en Femenino* emanaldia. Pikuxar egoitza berriaren lehenengo urteurren. 19:00etan, Pikuxarren.**ALTSASU Stupenda Jones taldearen kontzertua eta Piti&Baxua punk ska festa.**

20:00etan, Idergi tabernaren terrazan.

IGANDEA 19

ALTSASU Emakume Master Cup Nafarroako paleta goma txapelketaren finala.

Finalistak:

Kadeteak: Aroa Arrosagaray - Amaia Río Boo / Uxue Urgoiti - Maialen Bengoetxea.

22 urtez azpikoak: Juncal Quevedo - Olaia Sarasibar / Naroa Otxoa - Olaia Eizagirre. Elite maila: Uxue Murillo - Irati Igoa / Amaia Espinal - Laura Sáez. 12:00etan, Burunda frontoian.

ALTSASU Euskal preso eta inheslariak etxera elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 20

ARBIZU Sakanako euskaltzaleen sarearen bilera irekia.

18:00etan, udaletxean.

IRURTZUN Irurtzun eta Atakondoa liburuaren aurkezpena.Manuel Iznola Gómezen *Irurtzun eta Atakondoa. Kirol haziak eta fruituak Bi Ahizpen oinetan* liburuaren aurkezpena Goizeder Lamarianorekin. 19:00etan, kultur etxeko batzar aretoan.**ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren Bizikleta Martxa iritsiko da. 19:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 21

SAKANA Pentsio duinen aldeko elkarretaratzeak.**IRURTZUN Begirada ezberdin bat argazki erakusketa.** Ekainaren 4etik 26ra. Asteleheneretik ostiralera 8:00etatik 22:00etara, larunbat eta igandetan 09:00etatik 22:00etara. Pikuxarren.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren Bizikleta Martxa Sakanatik pasako da.

10:15 Etxarri Aranzako udaletxearen aurrean.

11:00 Lakuntzako udaletxearen aurrean.

12:30 Irurtzango udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 22

ETXARRI ARANATZ Aranatz haraneko zeraren zerak liburuaren aurkezpena.

Jose Luis Erdozia Mauleonen Aranatz haraneko zeraren zerak liburua; Aranatz historiaurretik 1936ra arte. 19:00etan, kultur etxean.



107.3 FM
belexe
ZUZENEAN 10:00-12:00
ERREPIKAPENAK 14:00ETAN
ONLINE ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

ESKELA



Martin Gallego Calderón

2022ko ekainaren 14an hil zen, 51 urte zituela.

Zure alaitasuna eta txantxak
beti gure bihotzetan osaba

Ilobak, Noelia, Naiara, Maider, Ainara eta Aitor

ESKELA



Martin Gallego Calderón



Zurekin bizitakoak gugan iraungo du

Familia

Etxarri Aranatz - Bogota

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ERRENTAN EMAN

Urdiaingo igerilekuak eta taberna hartzeko interesa baduzu, idatzi Aitziber Elkarteko e-postara. Animatu zure lagun, familia edo talde batekin, idatzi aitziberurdiaingo@gmail.com helbidera.

Bakaikuko Bakarrekotxeko elkartearen festetan alokatu nahi da: Bakaikuko festetan, uztailearen 22tik 26ra, bi elkarrekin alokatu nahi dira. Elkarte handiaren prezioa 2500 eurokoa izango da eta elkarte txikiarena 2000 eurokoa. Eskaintzak uztailearen 4ko 21:00ak baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago www.bakaiku.info web orrian edo bakarrekotxea@gmail.com emailera idatziz.

LAN ESKAINTZAK

Ziordiko Udala igerilekuetarako sorosle bila: Udalak Udako igerileku sasoirako sorosleak kontratatu nahi ditu. Interesa dutenek Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Altsasun duen bulegoan izena eman beharko dute.

Urdiaingo igerilekuetan sorosle moduan lan egiteko interesa izanez gero, jar zaitez Aitziber Elkarteko juntakideekin harremanetan aitziberurdiaingo@gmail.com helbidera idatziz.

Lakuntzako igerilekuetan igeriketa monitore bila: Udalak garilaren 4tik 29ra bitarteko aste-gunetan igeriketa ikas-

taroa eskaini nahi du. Sorosle titulua, EGA edo baliokidea den titulua eta desfribiladoreak erabiltzen jakitea eskatzen da. Interesa duenak Curriculum eta titulazioak aurkez ditzake Lakuntzako Udaletxean ekainaren 27ra arte.

Jaibusean arduradun lana egiteko jendea behar da: Interesa dutenek deitu hauetako telefono batetara: Irurtzunen 605 466 805, Etxarrin 679 534 481 eta Altsasun 616 841 995. Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

LAN ESKAERA

48 urteko emakumea, adineko jendea zaintzeko edo ostalaritza garbiketara lan egiteko prest. Telefono zenbakia 653998035

IKASTAROA

Iturmendiko 2022/2023 ikasturteko ikastaroetan izen ematea zabalik: 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat ludoteka ingelesez, multikirola eta xakea, euskal dantzak, marrazketa, trikitixa, panderoa, txistua, dantza modernoa, gorputz adierazpena, psikomotritzitatea, pilatesa eta ingelesa ikastaroetan eman daiteke izena. 16 urtetik gorako gazte eta helduentzat marrazketa, trikitixa, panderoa, psikomotritzitatea, txistua, dantza modernoa, gorputz adierazpena, boxeoa, pilates, ingelesa eta frantsesa ikastaroetan. Izena ema-

teko edo informazio gehiago nahi izanez gero deitu 615 704 540 telefonora. Iturmendiarrez aparte, bakaikuarrek eta urdiaindarrek ere eman dezakete izena.

Lakuntzako igeriketa ikastaroan izen ematea zabalik: ekainaren 27ra arte eman daiteke izena, www.lakuntza.eus web orrian. Ikastaroa garilaren 4tik 29rako astegunetan izango dira.

Altsasuko Kirol Eskoletan izen emateko epea: ekainaren 7tik ekainaren 21era arte 948 012 012 fñora deituz. Eskaintza Udaletxeak banatutako eskuorrian. Plaza mugatuak direnez Altsasun errol-datutakoek lehentasuna iznago dute, bigarren irizpidea inskripzioaren hurrenkera arabera. Urriaren 1etik maiatzaren 31 arte irauten dute ikastaroek, ordainketa irailan egiten da. Informazioa, erreklamazioak eta zerrendak Gure Etxean edo Udaletxean.

DHARRAK

Lakuntzako musika eskolan izena emateko epea zabalik: Ikasketak hauetan eman daiteke izena garagarriaren 21a baino lehen: musika eta mugimendua, musika hizkuntza, akordeoia, trikitixa, bateria, gitarra, pianoa, tronpeta, txistua, tuba, panderoa, gaita, fanfarrea, bonbardino eta tronboia.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Maria Jesus Flores Flores



'Mari'
—Goian bego—

2022ko ekainaren 9an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko gure bizitzetan
jarri duzun maitasunagatik
Gure bihotzetan beti

Zure familiye

JAIOTZAK

• **Aimar Agirre Razkin**, ekainaren 9an Lakuntzan.

EZKONTZAK

• **Iñigo Okariz Agirre eta Saioa Rivero Usunariz**, ekainaren 7an Ziordian.

HERIOTZAK

- **Maria Jesus Flores Flores**, ekainaren 9an Lakuntzan.
- **Maria Luisa Goikoetxea Arza**, ekainaren 13an Altsasun.
- **Martin Gallego Calderon**, ekainaren 14an Altsasun.
- **Claudio Sainz Blasco**, ekainaren 15ean Uharteko Arakilen.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELA

Haizea Beruete Lopetegi



Haizeak
infinitez eraman
hegan egiten,
askea izan nahian.
Izarrek dir-dir
amestutako bidea erakusten.
ihesbidea, atsedena.
Gure bihotzetan betiko

Zure familia



IZARRA

HEMEL, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Etxarri Aranazko artisten erakusketa, herriko plazan.

Etxarri Aranazko artisten erakusleioa

Etxarri Aranazko margo taldearen ikasturte amaierako erakusketa, aurten, artista etxarriaren erakusketa kolektiboa bihurtu da. Herriko artistak balorean jartzea izan da udalaren helburuetako bat.



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Ziordiko liburutegitik lau gomendio

Euskarazko eleberriekin hasiko naiz. Lehenengoa, oraintxe bukatu berri dudana Izaskun Etxeberria Zufiaurre sakandarraren *Esaten ez den guztia* liburua da. Eleberria zenbait istorioz osatua dago, eta denak trenbidearekin edo errepidearekin lotuta daude. Historia gustatzen bazaizu, gerra garaiko urteetara erabat eramaten zaitu, eta interesgarria da ikustea nola bizi ziren aro hartan. Pertsonaiak bertako jende xumea dira eta idazleak, une batez, kontu bitxiren baten protagonista bilakatzen ditu. Oso gustura irakurri dut eta bertako lekuak aipatzen dituen oso argi irudikatzen dira istorioak.

Bigarrena *Ez erran inori*, Maddi Ane Txoperena Iribarren idazlearena. Liburua sexu abusuei buruz da eta

gaurkotasunez beteriko gai hori ez da batere atsegina, hori nabaritzen da irakurlean. Askok ez du horrelako ezer irakurri nahi, higuinagarria egiten zaie eta egiten zaigu. Horregatik, irakurtzen hasi nintzenean beldurrez hasi nuen irakurraldia eta ez, ez nuen ustekaberik izan, lehenengo atala irakurri nuenean benetan gogorra iruditu zitzaidan, izan ere, ekintzak zehaztasun handiarekin, edo hobeto esanda, handiegiarekin deskribatzen ditu. Liburuko protagonistak, Lidek, bere lehengusuaren sexu abusua pairatuko ditu, eta sekretu hori isiltasun bihurtuko da. Gu, geu izango gara sekretu horren konplizeak errealtatean askori gertatu izan zaion moduan. Eta sekretu horren ondorio

lazgarriak eta kulpa hitzaren errepikapena ere izanen dira protagonistak. Gai gogorra baina beharrezkoa.

Gaztelaniazko eleberriak. Lehena, *Desde el país de los blancos*, bizitza gogor batetik bizirik dirauen gaztetxo baten istorioa da. Beste askoren istorioa izan liteke Ousmanena, alegia, joan eta etorriko etorkin askoren bidaia gogorra. Beraien egoera eta bizipenak oso ongi islatzen ditu lehenengo pertsonan idazten duen Ousman Umar protagonista eta idazleak. Merezi du irakurtzea ikusteko zein egoera suertatzen zaizkien bizitza hobe baten bila joaten diren etorkinei. Bigarrena, *Últimos días en París*, Paloma Sánchez-Garnica idazlearen azkeneko eleberria da. Hitlerren garaiko bizipenak agertzen dira liburuan. Hitler kantziler izendatu zuteneko garaia da, eta irakurri ahala maitasuna eta gerra gurutzatzuz joango dira. Borroka, bizi iraupena eta harremanak izango dira protagonista. Irakurtzeko atsegina eta interesgarria.

ETXARRI ARANATZ

Etxarriko artisten erakusketa-aren "arrakastarekin" pozik agertu da Marta Lopez Urmeneta zinegotzia. Margo tailerraren erakusketa zena, herriko artisten erakusketa bihurtu dute aurten, eta datozen urteetan artista gehiago parte hartzeko prest agertu direla jakinarazi du Lopezek. Dena margo tailerraren ikasturte amaierako erakusketarekin hasi zen: "Urtero margo tailerrekoek erakusketa bat egiten dugu, kultur etxean, eta azken urteetan plazan egiten dugu". Izan ere, kultur etxean emanaldiren bat egotea baliatzen bazuten ere, "ez zen jende asko joaten". Kalera ateratzea erabaki zuten, eta pixkanaka jende gehiago hurbiltzen zela aitortu du zinegotziak.

Artisten leihoa

Etxarri Aranazko artistek parte hartu zuten ekainaren 12an, igandean, plazan egin zen erakusketa: margo taldeko kideak, Emhari joskintza taldeak, Silvia Sismak bere Pitxikeyekin, estimulazio kognitiboko taldeak, Idoia Agirrek, Tomás Mauleónek,

Lurdes Goldazarenak eta Silvestre Goikoetxeak.

Margo tailerrean hamar pertsona inguruk parte hartzen dute, "eta lanak ikustean parte hartzea gustatuko litzaiokeela aipatzen zuen jendeak, baina ez dakiela margotzen". Emhari joskintzako bi taldeek mantalak erakutsi zituzten eta estimulazio kognitiboko taldean burua lanean jartzeko ariketak egiten dituzte, hitz gurutzatuak, marrazkiak eta abar. Ariketak probatzeko aukera izan zen erakusketa ere. Bestetik, haurren arropetan margoak egiten zituztenak, gantillozko lanak, zurez egindako lanak eta margolarien lanak ere bazeuden. "Herriko artisten leiho bat izatea nahi dugu". Arte erakusketa bat zen, baina salmentak ere egon zirela esan du Lopezek; "ez zen hori helburua, baina egon ziren ere".

Arte erakusketak Etxarri Aranazko musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako emanaldiarekin bat egin zuen. Giro polita sortu zen plazan, eta datozen urteetan artista gehiagok parte hartzeko interesa azaldu dute, "erakusketa zabalduko da".

Ikasturte amaiera iritsi dela ospatzeko emanaldiak

Musika eta dantza eskolek ikasturtean ikasitakoa kultur etxeetan eta plazetan erakusten ari dira

SAKANA

Arteen ikasketen barruan egindakoa eta ikasitakoa jendearean erakustea ezinbestekoa da, izan ere, musika eta dantza bezalako diziplinak entzuteko eta ikusteko dira. Horregatik, txikitatik ikasleei emanaldiak egitera ohitzen zaie. Urtean zehar zenbait erakustaldi egiten dituzten arren, emanaldirik garrantzitsuenetarikoa ikasturtekoak dira. Bi urtez modu ezohikoan aritu ondoren, aurten itzuli dira ikasturte amaierako musika emanaldiak.

Irurtzango musika eskolak Itsasperrin, Lakuntzako musika eskolak kultur etxean, Etxarri Aranazko musika eskolak plazan eta Olaztiko musika eskolako konboak, besteak beste, Memoriaren parkean kontzertuak eskaini dituzte egunotan.

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak ere ikasturteko amaie-



Altsasuko dantza ikaslea. BIHOTZ

rako emanaldia eskaini zuen Iortia zabalgunean, eta dantza ikasleek bi ikuskizun eskaini zituzten kultur gunean; alde batetik, txikienek ekainaren 3an eta, bestetik, ekainaren 10ean gazte eta helduen dantza emanaldiak egin zituzten.



Ziordiko sukaldariak, senideak, udal ordezkariak eta, eskuinetik bigarrenera, Jose María Alegría omenaldian. UTZITAKOIA

Ziordia herriari omenaldia

Jose María Alegría 'Pinttu' musikariak Ziordiko sukaldarien liburuari soinu banda jarri dio, eta Kubako talde batekin 'Navarra hasta la cocina' abestia sortu du. Ziordian denbora asko pasatzen zuen Pinttuk, eta "zor" bat zuen.

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA Benjamin Urdiain, Juan Manuel Mendibe, Valentin Agirre, Jose Ignacio Urdiain, Antonio Iglesias, Javier Arbizu sukaldari ziordiarak, Oyarbide familia eta Zalacain jatetxeak omendu zituen Nafarroako ostalaritza eta turismo sektoreak. Ekitaldiak soinu banda izan zuen: *Navarra hasta la cocina* abestia, Jesus María Alegría *Pinttuk* musikariak sortuta eta Kubako Imaelillo taldeak musikatua. Berak izen bereko liburua kaleratu zuen, eta omenaldiaren sustatzailetako bat izan zen ere.

Pintturen eta Ziordian arteko harremana aspaldikoa da: "Banuen bertan osaba bat: Gabriel Urteaga. Txistua jotzen zuen eta ni festa guztietara joaten nintzen. Ziorditik Araia negarrez itzultzen nintzen". Musikariak Araia-ko ibaiari abesti bat eskaini

zion, "ibaia Nafarroaruntz joaten delako". Araiako gaztea Nafarroako Erreina zela esan du ere. Hortaz, Nafarroarekiko maitasuna eta harremana oso estua da. "Dena gustatzen zait, festa guztietara joaten nintzen: Ziordia, Olazti, Altsasu...". Herrian "giro polita" egoten zela esan du musikariak, "nire osabak jende askori musika erakutsi zion. Habanerak, mexikarrak eta abar abesten zituzten, egun guztia abesten zeuden"; eta abesten duen herria ez da inoiz hilko. "Ez dezala Ziordik inoiz galdu hori".

ZIORDIAREKIN "ZOR" BAT ZUELA USTE ZUEN PINTTUK, ETA EMOZIOTIK ABESTIA SORTU ZUEN

Ziordiko osaba eta izebaren etxean gizon bibotedun baten koadro bat zegoela azaldu du musikariak: "Gitarra bat zuen eskuetan. Ziordiko mirariaren aitzindaria izan zen". Gizon hura Parisera, Londresera eta Californiara joan zela azaldu du, eta bertan ostatu bat ireki zuen, Euskal Herriatik joaten zirenen egoitza izaten zena. "Gero Benjamin, Javier eta abar atera ziren". Ziordiko sukaldariak. "Oso saltseroak izan dira, eta beti esan dute nafarrak direla, Nafarroakoak, Ziordikoak".

Egunero abesti bat Pandemia hasi zenean *Pinttuk* bi lagun depresio oso indartsuarekin zituen. "Esaten zidaten ezin zutela gehiago, ezin zutela iraun, eta hasi nintzen egunero abesti bat bidaltzen". Gosaldu bitartean sortzen zituen abestiak,

gitarrarekin jotzen zituen, eta prestatu eta zuzendu gabe bidaltzen zizkien. "Jubilatuaren bitzta horrelakoa da...". Noiz-behinka lagun gehiagori bidaltzen zizkion, eta horrela Kubako musikari bati bidali zion ere. *Navarra hasta la cocina. Ziordiko sukaldarien istorioak* liburua kaleratu zuenean, abesti bat egin behar zuela pentsatu zuen ere. "Abestia egin nuen eta Kubara bidali nuen, eta bertan Ismaelillo taldeak salsarekin nahastu zuen, eta sukaldari hauei eskaini nizkien".

"Liburua martxan hasi zenean, haiek ere ez zuten sinisten liburua aterako zenik, abestia atera zitzaidan". Behar bat izan zen abestia egitea. Ziordiar dion "maitasunetik eta zorretik" sortu zuela azaldu du musikariak. "Emozionatzen zarenean gauzak ateratzen dira".

Beste moduko omenaldi bat dela esan du *Pinttuk*, "eta Ziordia zabaltzeko eta sustatzeko ere beste modu bat. Merezki dutelako. Oso sukaldari garrantzitsuak izan ziren, lehenengo Michelin izarrak lortu zituzten Madrilan, lan egiten adituak ziren, ez zegoen marketing-ik". Oso umilak zirela gaineratu du: "Nik esaten nien umilegiak izan direla, lana nabarmentzea eta omentzea oso polita dela".

Aurreko egunean Nafarroako ostalaritza eta turismo sektoreak egindako omenaldian *Pinttuk* Ziordiko jota jo zien, "duela 61 bat urte jotzen nuen, eta modu inprobisatuan, ahal nuen bezala ordezkari hartzak erortzearen beldurrarekin eta adinaren ajearekin... jo nuen. Nola ez nuen joko!". Emozioaren "fruitua" izan zela esan du, izan ere, "Ziordin oso zoriontsu izan nintzen".

Musikaren indarra *Pinttu* Mugarik gabeko musikariak Gobernu Kanpoko Erakundearen presidentea da. "Duela 28 urte Habanan egon nintzen eta bertan hurrek instrumentuak lortzeko zuten arazoza ikusita zerbait egin behar nuela pentsatu nuen". Hasieran "denetarik" egiten zutela esan du:

MUGARIK GABEKO MUSIKARIAK ELKARTEAK INSTRUMENTUAK BILTZEN DITU

instrumentuak jaso eta behar zuten herrialdeetan banatu, musikariaren jantziak... "Musikak indar handia du".

Duela 22 urte Erroman egon ziren, eta hor sortu zitzaizen giza eskubideen aldeko zerbait egitea. "Bertakoekin hitz egiten egon nintzen eta esan nien gu prest geundela. Bertan sortu zen Giza eskubideak instrumentu hobereena kanpaina". Arrakasta "izugarria" izan zuela azaldu du, eta herrialde askotan egon zirela. "Hor hasi ginen giza eskubieen aktibistak izaten". Garai horretan ez zuten pentsatzen horretara bideratuko zutenik.

Instrumentuak Kolonia, Argentina, Palestina, Siria... Mugarik gabeko musikariak elkarte herrialde askotan egon da. Gainera, musika instrumentuen lehenengo bankua egin dute, Gasteizen. "Bankuaren bidez egin genuen lehenengo ekimena Siriako hurrei tona bat instrumentu bidaltzea izan zen. Hiru musika eskola bonbardeatu zituzten, eta gure laguntzarekin berriz altxatu zituzten". Ondoren, ISISek harrapatu zituen emakume kurduekin lanean aritu ziren, eta hurrengo proiektua Mexikon eginen dute, "nahiz eta Mexiko lehenagotik hurrekin zerbait egin behar dugu". Bestetik, Cabo Verde, Afrikan, emakume eko feminista elkarte batekin lanean ari dira, eta esklabotasunaren kontrako proiektu bat jarriko dute martxan. "Oraindik badira esklabuak, eta hemendik, Euskal Herriatik esklabizatzaile asko atera ziren". Gerran dauden zenbait herrialdeko Askatasunaren orkestrak egiteko eskatu dietela esan du musikariak.

Nafarroa "oso solidarioa" dela esan du, eta Mugarik gabeko musikariak elkarteak zenbait kanpaina egin ditu bertan. Duela zenbait hilabete Lakuntzan kontzertua eskaini zuten eta instrumentu bilketa egin zuten ere. Iñaki Bizkai akordeolari lakuntzarra da erakundeko ordezkaria, "fenomeno bat da". Elkartearekin kolaboratu nahi duenak musicossinfronteras.org webgunearan bidez egin dezake.

Gasteizen Extremaduratik etorritakoen omenezko kontzertua eskaini zuten, eta Altsasun egitea "ongi" legokeela esan du *Pinttuk*.



Ana Imaz Aldasoro Maialen Estetika Zentroko jabea. UTZITAKOIA

"Zorte handia izan dut izan ditudan bezeroekin"

Olaztiko Maialen Estetika Zentroaren 40. urteurrena ospatu du Ana Imaz Aldasoro estetizistak. Hasieran arropa denda ere izan zuen, eta denborarekin aurpegi tratamenduetan eta produktu naturaletan bereizitu da.

E. C. M. eta E. R. B. OLAZTI

1 Zentroak 40 urte bete ditu, baina zenbat daramazu lanean?

Ahizpa bat, anaia bat eta ni ginen, eta hirurek ikasketak utzi genituen. Amak lan egiteko gogoak zituen, eta garai horretan Kasinoa, Clinker, eman behar zuten. Laurak aurkeztu ginen, baina gaur egungo jabea eman zieten. Arropa denda bat jartzea pentsatu genuen. eta dendaren barruan, gela batean, estetika zentroa jarri genuen. 18 urterekin atera nintzen akademiatik, eta obrak egin bitartean etxean egon nintzen. Abenduan denda mustu genuen, eta orduan jaitsi nintzen. Amets bat izan zen; ilusio handiarekin egin genuen dena, oso polita izan zen.

2 Zergatik Maialen izena?

Familia merkataria izan omen da. Nire amona Magdalena deitzen zen eta denda bat zuen; Magdalenaren denda. Orduan,

denda zegoen iskina Magdalenaren iskina zen eta bertan zegoen eserlekua Magdalenaren bankua. Denda ireki genuenean mantendu nahi izan genuen, baina bueltatxo bat eman genion: Maialen.

3 Nolako izan zen ikastaroa? Formatzen jarraitu duzu?

Gaur egun estetika ikastaroak askoz osatuagoak dira. Garai horretan akademiako urte bat zen, eta lanera. Praktikak bezeroekin egin nituen. Atera nintzen ez nekien asko, eta formatzen jarraitu dut. Ikastaro asko egin ditut. Ogibide oso aldatkorra da, eta etengabe eguneratuta egon behar zara.

4 Moldatzen joan behar zara.

Bai. Gauza asko egiten dira estetikaren barruan, abaniko handi bat da, eta bakoitzak bere bidea egiten du. Nik osasunaren eta produktu naturalen bidea hartu dut. Urteekin asko ikasten joan naiz.

5 Nola lan egiten zenuen?

Gauzak askoz oinarritzkoak ziren: depilazioak eta holakoak. Orain mimo gehiagorekin egiten da dena, gehiago hitz egiten da. Baina nik uste ni ere aldatu naizela dela. Pertsona bakar batekin egoten naiz, eta horretan zentratzen naiz. Garantzitsuena eroso sentitzea da.

6 Estetika zentroa nola aldatu da?

Ahizparekin eta amarekin hasi nintzen. Ahizpa azkar joan zen eta ama hogeitaz egon zen. Erabaki bat hartu behar nuen. Pena handia ematen zidan denda ixtea, baina ezin nituen bi gauzak eraman. Azkenean estetika zentroarekin gelditzea erabaki nuen, eta toki guztia hartu nuen, moldaketa batzuk eginez.

7 Eta Ana Imaz zertan aldatu da?

Azken bost edo sei urtetan, onerako transformazio handi bat izan dut, eta dena Bach loreei esker izan da. Rosa Legarrarekin ikastaro bat egin nuen, eta talde bat osatu genuen.

Beraklore bakoitzaren propietateak erakutsi zizkigun. Hartzen ditudana etik aldaketa erradikala izan da, maila guztietan. Barrutik aldatzen zarenean, kanpotik ere aldatzen zara.

8 Alde profesionalen ere naberitu duzu?

Pertsonarekin gehiago nago, hitz egiten dugu, gai oso pertsonalei buruz aritzen gara... Nahi badute, ez badute nahi eguraldiaz hitz egin dezakegu, baina sortzen bada hitz egiten dugu eta oso polita da. Lore terapia zerbitzua ere egiten dut.

9 Zer zerbitzu eskaintzen dituzu?

Aurpegi tratamenduetan aditua naiz. Olio esentzialak eta aromaterapia erabiltzen dut ere. Nire ogibidearen beste mugarri bat da. Beste gauza bat desberdin

egiten dudana kinesologiaren bidez produktuak aukeratzea da. Bakoitzari dagokion produktuekin lan egiten dut; probatzen dut, eta hori erabiltzen dut.

10 Nola aldatu dira bezeroak?

Ez dakit oso ongi... Agian produktu naturaletarako joera gehiago dago. Estetika zentro batera etortzen denak zerbait gehiago bilatzen du; kalitatea. Oso pozik nago nire bezeroekin, zorte handia dudala uste dut. Eskerrak eman nahi dizkiet.

11 Nola ospatu duzu urteurrena?

Ospatu dudana lehenengoa izan da. Aste zoragarria izan da; lanpetuta, baina oso pozik. Terapia express-ak egin ditut, ikastaroak, produktuen probak, ospakizuna...

DISEINUA GRAFIKOA
MAKETAZIOA KARTEL GINTZA
PAPER
KOMUNIKAZIOA
IRUDI KORPORATIBOAK
EGUTEGIAK AGENDAK
ROLL-UPAK JATETXE ENPRESA **EUSKARRIAK**
PEGATINAK UDAL BULETINAK
LIBURUAK **WEB DISEINUA** BISITA TXARTELAK
FORMATU HANDIKO EUSKARRIAK **LONAK APLIKAZIOAK**
SARE SOZIALAK
PERTSONALIZATUTAKO EUSKARRIAK
ALDIZKARIAK PUBLIZITATEA

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436 · 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu